

# Aurrekontuak

Proiektua

# 2019

Proyecto

# Presupuestos



GAI OROKORRAK

# 2

TEMÁTICA GENERAL

EKONOMIA- ETA FINANTZA-TXOSTENA • INFORME ECONÓMICO-FINANCIERO



# Aurrekontuak

Proiektua

# 2019

Proyecto

# Presupuestos

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

OGASUN ETA EKONOMIA  
SAILA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA  
Y ECONOMÍA

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2018

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren Bibliotekak sarearen katalogoan  
aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>  
Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo  
de la red Bibliotekak del Gobierno Vasco: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpa>

Argitaraldia / Edición: 1.a 2018ko urria / 1ª, octubre 2018

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa / Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco  
Ogasun eta Ekonomia Saila / Departamento de Hacienda y Economía

Internet: [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

Argitaratzailea / Edita: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa / Imprime: Eusko Jaurlaritzaren Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua / Servicio de Imprenta y Reprografía del Gobierno Vasco

# Ekonomia- eta Finantza-txostena

## *Informe Económico-Financiero*


2 Alea  
Tomo 2

### Aurkibidea / Índice :

---

1.	EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA.....	1
	<i>LA COYUNTURA ECONÓMICA EN SÍNTESIS</i>	
2.	EAE-KO EKONOMIA 2018KO BIGARREN HIRUHILEKOAN .....	5
	<i>LA ECONOMÍA VASCA EN EL SEGUNDO TRIMESTRE DE 2018</i>	
2.1.	EAEko Ekonomiaren Testuingurua.....	7
	<i>Contexto de la Economía Vasca</i>	
2.2.	Ekoizpena eta Enplegua.....	13
	<i>Producción y Empleo</i>	
2.3.	Barneko eta kanpoko eskaria .....	19
	<i>Demanda interna y externa</i>	
2.4.	Prezioak, kostuak eta soldatak.....	29
	<i>Precios, costes y salarios</i>	
2.5.	Arlo publikoa.....	35
	<i>Sector público</i>	
2.6.	Arlo finantzarioa.....	39
	<i>Sector financiero</i>	
3.	EAE-RAKO ETA TESTUINGURURAKO EKONOMIA-AURREIKUSPENAK .....	47
	<i>PREDICCIONES ECONÓMICAS PARA EL PAÍS VASCO Y SU ENTORNO</i>	





**1. EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA**  
***LA COYUNTURA ECONÓMICA EN SÍNTESIS***

2018ko hasieran lortu zuen bizkortze txikiaren ondoren, bigarren hiruhilekoan Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ekonomiak %2,9ko urte arteko aldakuntza tasa jaso zuen. Tasa hori aurrekoa baino bi hamarren txikiagoa da eta hasiera ematen dio Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak osatu zuen azken eszenategi makroekonomikoan iragarri zen moteltzeko prozesuari. Hiruhilekoaren hazkundera bat etorri denez Eusko Jaurlaritzaren aurreikuspenarekin, baieztatuta geratu da gidoia espero zen bezala betetzen ari dela. Beraz, dokumentu honetan eskaintzen diren aurreikuspen gaurkotuak, azken atalean zehazten baitira, eta ekainean argitaratu zirenak oso antzekoak dira.

Moteltzearen hasierak ingurune ekonomikoaren bizitasun apalagoan izan du jatorria, esportazioen eta inportazioen zenbakiak aurreko hiruhilekoetan bildutakoak baino nabarmen txikiagoak direlako. Apaltze hori biziagoa izan da esportazioen atalean. Horren ondorioz, kanpo saldoak lehen hiruhilekoan hazkundera ia hamarren oso bat ekartzetik bigarrenean bi hamarren inguru kentzera igaro da. Bi emaitza horien artean dauden bi hamarrenek azaltzen dute ekonomiaren moteltze osoa.

Aitzitik, barne eskariak lehen hiruhilekoaren jarrera hedatzaileari eutsi zion eta 2017 urte osoan ere eskuratu zuen %3,0ko tasa berdindu zuen. Agregatuak egonkortasuna islatu duen arren, beraren bi osagai nagusiek bilakaera kontrajarriak erakutsi zituzten epealdi horretan. Izan ere, azken kontsumoak hainbat hamarretan leundu zuen bere hazkunde erritmoa eta kapital eraketa gordinak ordurako oso bizia zen erritmoa bizkortu zuen %4,8ko urte arteko balioa eskuratu arte. Nabarmentzekoa da berriro ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioaren sendotasuna (%6,1), baina gainontzeko inbertsioak ere oso gehikuntza esanguratsua (%4,0) lortu zuen, aurreko emaitzak hobetu zituen.

Aipatu berri den azken kontsumoaren apaltzea bai kontsumo pribatuan bai administrazio publikoaren kontsumoan hauteman zen. Lehen kasuan, urte arteko gehikuntza %2,6ra arte gutxitu zen, aurreko balioa baino hiru hamarren beherago eta BPGaren hazkundera baino hiru hamarren gutxiago ere. Horrek urrutzen du familien zorpetzea handitzeko arriskua, interes tasak txikiak diren une batean. Beste aldetik, kontsumo publikoak %2,0ko tasa izan zuen, hori ere BPGaren gehikuntzaren oso azpitik.

Sektoreen analisiak adierazten du hala industriak nola zerbitzuek hazkunde erritmoa leundu zutela bigarren hiruhilekoan, baina bi kasuetan tasa horiek eta 2017. urtean jasotakoak oso antzekoak dira. Zehazkiago adierazita, industria lehen hiruhilekoko %3,7tik bigarreneko %3,1era igaro zen. Zerbitzuek, berriz, %2,8ra murriztu zuten bere hazkundera, lehen laurdeneko %3,1aren ondoren.

Tras el suave repunte conseguido en el inicio de 2018, en el segundo trimestre la economía vasca anotó una tasa de variación interanual del 2,9%, una cifra que es dos décimas inferior a la anterior y que da inicio al proceso de desaceleración que se anunciaba en el último escenario macroeconómico elaborado por la Dirección de Economía y Planificación. El hecho de que el crecimiento del trimestre haya coincidido con la previsión del Gobierno Vasco confirma que se está cumpliendo el guion en los términos que se esperaban, por lo que las previsiones actualizadas, que se ofrecen en el último apartado de este documento, apenas varían sobre las que se publicaron en junio.

El inicio de la desaceleración se ha producido exclusivamente por una pérdida de dinamismo en el entorno económico, que se traduce en unas cifras de exportaciones e importaciones sensiblemente menores que las registradas en los trimestres anteriores. Como resultado de esa pérdida de intensidad, más acentuada en las exportaciones, el saldo exterior pasó de aportar casi una décima al crecimiento en el primer trimestre a restar cerca de dos en el segundo, dos décimas de diferencia que explican la totalidad de la desaceleración mencionada.

Por el contrario, la demanda interna mantuvo el tono expansivo del trimestre anterior y repitió la cifra del 3,0% que también registró en el conjunto de 2017. A pesar de esa estabilidad general, los dos componentes principales del agregado mostraron evoluciones contrapuestas en ese periodo, de manera que el consumo final suavizó algunas décimas su ritmo de crecimiento mientras que la formación bruta de capital acentuó su ya de por sí intenso dinamismo hasta alcanzar un valor interanual del 4,8%. Vuelve a destacar la fortaleza de la inversión en bienes de equipo (6,1%), pero también el resto de la inversión consiguió un incremento muy significativo (4,0%), que mejora los resultados anteriores.

La mencionada moderación del consumo final afectó tanto al consumo privado como al consumo de las administraciones públicas. En el primer caso, el incremento interanual se moderó hasta el 2,6%, tres décimas por debajo del valor anterior y también tres décimas menos que el crecimiento del PIB. Esto aleja el riesgo de un mayor endeudamiento de las familias en un momento de bajos tipos de interés. Por su parte, el consumo público anotó un 2,0%, también muy por debajo del incremento del PIB.

El análisis sectorial indica que tanto la industria como los servicios suavizaron su ritmo de crecimiento en el segundo trimestre, si bien en ambos casos las cifras obtenidas son similares a las registradas en el conjunto del 2017. Más en detalle, la industria pasó de un 3,7% en el primer trimestre a un 3,1% en el segundo, mientras que los servicios redujeron su tasa hasta el 2,8%, tras el 3,1% del primer tramo.



Zerbitzuetako hiru blokeak gutxiago hazi ziren bigarren hiruhilekoan. Alde batetik, merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituenak %2,7 handitu zuen bere balio erantsia, hots, lehen hiruhilekoan baino lau hamarren gutxiago. Beste aldetik, administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak barnean hartzen dituena %2,3 hazi zen, aurreko emaitza baino sei hamarren gutxiago. Gainontzeko zerbitzuek hamarren bakar batean gutxitu zuen beren tasa, %3,0ra arte. Azkenik, eraikuntzaren balio erantsia %4,1 areagotu zen, kasu horretan lehen hiruhilekoaren datua nabarmen gaintuz, nahiz eta zenbaki hori eta 2017ko batez bestekoa oso antzekoak diren.

Lan merkatuak bilakaera ona erakutsi zuen berriro bigarren hiruhilekoan, enpleguaren urte arteko gehikuntza tasa %2,1 izan baitzen, aurreko hiruhilekoetako emaitzetatik desbideratu gabe. Tasa horrek esan nahi du azken hamabi hilekoetan EAEn lanaldi osoko 20.000 lanpostu garbi inguru sortu direla. Horri esker, EAEko ekonomiak gaur egun 956.000 lanpostu dauzka, azken bederatzi urteko kopururik altuena baita. Hala ere, oraindik 45.000 lanpostu gehiago sortu behar dira inoiz eduki duen kopururik gorena berreskuratzeko: 2007ko amaieran eta 2008ko hasieran zeuden milioi bat lanpostu haiek.

Aurreko buletinetan ere adierazi zenez, EAEko ekonomiaren sendotasunak ez du tentsio garrantzitsurik sortu prezioetan. Izan ere, BPGaren deflatoea %1,0 izan zen bigarren hiruhilekoan, oraingo zikloaren fasea kontutan hartuta oso apala baita. KPI indizea azken lau hilekoetan jarraian %2,0ko helburuaren gainetik egon bada ere, igoera horren arrazoiak puntualak dira eta, printzipioz, iragankorra izango den energiaren garestitzearen ondorioa da. Halaber, azpiko inflazioa, kontsumoko prezioen joera hobeto neurtzen baitu, %1,0 baino ez da hazi hiruhilekoan, BPGaren deflatoearen bezalatsu.

EAEko barne produktu gordinaren bigarren hiruhilekoko hazkundera eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren aurreikuspena bat etorri direnez, 2018rako eta 2019rako taula makroekonomikoaren gaurkotzeak ia ez du aldakuntzarik ekarri. Zehazkiago, aurtengo hazkunde tasa %2,8 izango da eta datorren urtekoa, berriz, %2,3, hiruhilekoka biziko den moteltzearen perfla bere horretan utzita. Hazkundera barne eskariaren sendotasunean oinarrituko da eta kanpo saldoak hamarren bakar bat kenduko dio urte bakoitzean. Kontsumo pribatuak bere intentsitatea motelduko du urratsez urrats, baina kapital eraketa gordinak hobera egingo du 2018an, datorren urtean apalduko den arren. Sektoreka, taula makroekonomikoak seinatzen du zerbitzuak eta industriak aurten eutsi egingo diotela erritmoari eta datorren urtean moteltze arina biziko dutela. Enpleguari dagokionez, 2018an 19.000 lanpostu sortuko dira eta 2019an, berriz, 13.500 gehiago. Langabezia tasa %10,0aren azpian kokatuko da datorren urteko bigarren erdian.

Los tres bloques de servicios crecieron menos en el segundo trimestre. Por un lado, comercio, hostelería y transporte aumentó un 2,7% su valor añadido, cuatro décimas menos que en el primer trimestre. Por su parte, el grupo de administración pública, educación, sanidad y servicios sociales creció un 2,3%, seis décimas por debajo del dato anterior. El resto de servicios tan solo minoró una décima su tasa, hasta el 3,0%. Por último, el valor añadido de la construcción aumentó un 4,1%, en este caso sensiblemente por encima del primer trimestre, aunque la cifra no es muy diferente a la que el sector conoció en el conjunto de 2017.

El mercado de trabajo volvió a mostrar una evolución favorable en el segundo trimestre, con un incremento interanual del empleo del 2,1%, en línea con los resultados de los trimestres anteriores. Esa tasa significa que en los últimos doce meses se han generado en Euskadi unos 20.000 puestos de trabajo equivalentes a tiempo completo netos, gracias a los cuales la economía cuenta ahora con 956.000 empleos, la cifra más elevada de los últimos nueve años, si bien faltan por recuperar unos 45.000 más para llegar a la cifra máxima que se haya conocido, el millón de empleos de finales de 2007 y principios de 2008.

Al igual que se señaló en los boletines anteriores, la solidez de la economía vasca no ha generado tensiones importantes en los precios. Así, el deflactor del PIB del segundo trimestre fue del 1,0%, un valor muy modesto para la fase del ciclo actual. A pesar de que el IPC lleva cuatro meses consecutivos por encima del objetivo del 2,0%, las razones de esa subida son puntuales y están ligadas al encarecimiento de la energía, que será, en principio, pasajero. Además, la inflación subyacente, que mide mejor la tendencia de los precios de consumo, tan solo ha aumentado un 1,0% en el trimestre, en línea con el deflactor del PIB.

La coincidencia entre el crecimiento del PIB vasco en el segundo trimestre y la previsión de la Dirección de Economía y Planificación implica que la actualización del cuadro macroeconómico para 2018 y 2019 apenas tenga modificaciones. En concreto, se mantiene la previsión del 2,8% para este año y del 2,3% para el próximo, con el mismo perfil de desaceleración trimestral. El crecimiento seguirá basándose en la fortaleza de la demanda interna, que se verá ligeramente lastrada por una aportación negativa del saldo exterior de tan solo una décima por año. El consumo privado suavizará poco a poco su intensidad, pero la formación bruta de capital mejorará sus resultados en 2018, para moderarse el año próximo. Por sectores, el cuadro macroeconómico indica un mantenimiento de los servicios y de la industria para este año y una suave desaceleración para el próximo. En materia de empleo, se anticipa una generación de 19.000 puestos de trabajo en 2018 y de 13.500 más en 2019, con una tasa de paro que se situará por debajo del 10,0% en la segunda mitad del año próximo.






**2. EAE-KO EKONOMIA 2018KO BIGARREN  
HIRUHILEKOAN**

***LA ECONOMÍA VASCA EN EL SEGUNDO TRIMESTRE  
DE 2018***







**2.1. EAEko Ekonomiaren Testuingurua**  
*Contexto de la Economía Vasca*







Aurtengo bigarren hiruhilekoan zehar, munduko ekonomiari erritmo onean hedatzen jarraitu zuen. Zehatz-mehatz adierazita, lehen zenbatespenen arabera, hazkunde globala %3,8aren inguruko balioetan kokatu zen lehen seiuhilekoan, 2017ko epealdi berean jaso zuen maila bertsuan. Hala ere, etorkizunari begirako arriskuak areagotu dira balizko merkataritza gudarengatik eta nazioartean finantzaziorako baldintza gogorragoengatik. Azkenik, munduko aurreikuspenak oraindik sendoak badira ere, berriki argitaratu diren datuek moteltze arina iradokitzen dute.

Durante el segundo trimestre del año, la economía mundial continuó expandiéndose a buen ritmo. En concreto, según las primeras estimaciones, el crecimiento global se situó en el primer semestre del año en valores cercanos al 3,8%, nivel similar al registrado en el mismo periodo de 2017. Aun así, se intensificaron los riesgos a futuro por la posibilidad de una guerra comercial y el endurecimiento de las condiciones de financiación internacional y, aunque las perspectivas mundiales continúan siendo fundamentalmente sólidas, los datos más recientes apuntan a una ligera pérdida de impulso.

## Munduko ekonomia. BPG Urte arteko aldakuntza tasak

## Economía mundial. PIB. Tasas de variación interanual



Iturria: Eurostat eta ELGE.

Fuente: Eurostat y OCDE.

Oro har, AEBetako hazkundera indartsua izan zen. Txinarena, berriz, nahiko egonkorra. Aitzitik, Europan eta azalera ari diren ekonomia nagusietako batzuetan hazkundera moteldu zen. Nazioarteko merkataritzak joera positiboari eutsi zion eta erritmoa galdu bazuen ere, oraindik ez du protekzionismoaren igoera islatzen.

A grandes rasgos, el crecimiento fue robusto en Estados Unidos y relativamente estable en China, mientras que se moderó en Europa y en parte de las principales economías emergentes. El comercio mundial continuó mostrando una tendencia positiva y, si bien perdió ritmo, todavía no refleja la escalada proteccionista.

Azaleratzen ari diren Asiako ekonomia nagusien artean, Indiako BPGa %8,0 areagotu zen, azken bi urteko emaitzarik gorena baita, kontsumo pribatuaren eta inbertsioaren sendotasunak eta esportazioen bultzadak (lehen hiruhilekoaren aldean, salmentak zortzi puntu baino gehiago handitu ziren) bultzatuta. Beste aldetik, Txina nahiko egonkor mantendu zen, beheranzko joera txiki bat erakutsita. Hain zuzen ere, Asiako erraldoiaren hazkunde erritmoa %6,7ra iritsi zen, hots, aurreko bederatzik hilekoetan lortutako hedaldia baino hamarren bat gutxiago. Kredituaren garestitzeak inbertsioa eta industria ekoizpena kaltetu zituen. Horrek eta esportazioen bultzada txikiagoak moteltze leun hori azaltzen dute.

Amerika Latinoan, bertako ekonomia nagusiek hazkundera gutxitu zuten. Beraien artean, Argentinaren eta Brasilen ekonomien ahultasuna nabarmendu behar da, ziurgabetasun politikoak eta finantza alorreko hegakortasunak kaltetuta. Zehazkiago adierazita, Brasileko hazkundera berriro apaldu zen aurtengo bigarren hiruhilekoan eta %1,0ra gutxitu. Maiatzeko azken asteetan kamioilariak egin zuten greba nazionalak kalte egin zion zuzenean jarduerari eta enpresari zein kontsumitzaileen konfiantza okerragotu zuen. Horrek moteltze garrantzitsua eragin zuen, hala kontsumo pribatua nola inbertsioan. Aurrekoaz gain, truke tasaren balio galera handiagoa izan da Brasilen azaleratzen ari diren beste herrialde batzuetan baino. Hori dela eta, suspertzeko prozesua espero zena baino astiroago gauzatu dela aurreikusten da. Mexikok, berriz, ezin izan zuen aurreko hiruhilekoaren gehikuntza finkatu eta indarra galdu zuen berriro. Eskura dauden datuen arabera, lehen arloak behera egin zuen, bero bolada gogorrek kaltetuta, eta industriak bere hazkundera galgatu zuen. Aurrekoaren ondorioz, Mexikoko BPGak zazpi hamarren galdu zituen eta %1,6an kokatu zen. Ekialdeko Europako ekonomiek hazkunde erritmoa moteldu zuten, Euroguneko apaltzearen ondorioz. Turkiari dagokionez, ekonomia jardueraren erritmo txikiagoaren arrazoia herrialde horretan berriki bizi den hegakortasun finantzarioaren eraginari lotuta dago.

Oro har, ELGE osatzen duten herrialdeak %2,5 hazi ziren eta, hazkunde hori aurreko hiruhilekoan jasotakoa baino hamarren bakar bat txikiagoa den arren, baieztatuta geratu da ekonomia aurreratu nagusien artean gehikuntzak erritmo ezberdinak erakusten dituela. Izan ere, AEBetan ekonomia jarduerak sendo egin zuen gora, baina Eurogunea eta Japonia aurreikusitakoa baino gutxiago hazi ziren. Zerga pizgarriak eta enplegu betean dagoen lan merkatua dira AEBetan jaso den hazkunde garrantzitsuaren zutabe nagusiak. Bizitasunaren zati handiena barne eskaririk iritsi zitzaion, batez ere kontsumo pribatutik. Soldatak gorantz doaz eta inbertsioa oraindik indartsu dago, aurreko hiruhilekoaren aldean erritmoa galdu bazuen ere. Orobat, esportazioen portaera sendoa azpimarratu behar da, Txinara bidaltzen den soja aurreratu zelako, nekazaritzako produktuei ezarri behar zitzaion muga zergak indarrean sartu baino lehen. Halaber, epealdi horretan inportazioak gutxitu ziren. Aurreko guztiaren ondorioz, ekonomia estatubatuarra %2,9 areagotu zen 2018ko bigarren hiruhilekoan, azken hiru urteko emaitzarik onena baita.

Entre las principales economías emergentes de Asia, el PIB de la India se incrementó hasta el 8,0%, el mayor registro de los dos últimos años, impulsado por la solidez del consumo privado y de la inversión, y por el tirón exportador (las ventas avanzaron más de ocho puntos porcentuales respecto al dato del primer trimestre). China, por su parte, se mantuvo relativamente estable, con un leve sesgo a la baja. En concreto, el crecimiento del gigante asiático alcanzó un ritmo del 6,7%, una décima por debajo de la expansión lograda los últimos nueve meses. El encarecimiento del crédito, que lastró la inversión y la producción industrial, unido al menor tirón exportador explican esta leve moderación.

En América Latina, sus principales economías disminuyeron su crecimiento, destacando entre ellas la debilidad de las economías de países como Argentina y Brasil, afectados por la mayor incertidumbre política y la volatilidad financiera. En concreto, el crecimiento de Brasil volvió a desacelerarse en el segundo trimestre del año, y se redujo hasta el 1,0%. La huelga nacional de camioneros llevada a cabo en las últimas semanas de mayo perjudicó directamente a la actividad y debilitó la confianza de empresarios y consumidores, que se vio reflejada en una importante desaceleración, tanto del consumo privado como de la inversión. Además, la depreciación cambiaria ha sido mayor en Brasil que en otros emergentes, por lo que se prevé que el proceso de recuperación será más gradual de lo esperado. México, por su parte, no logró consolidar el avance del trimestre previo y volvió a perder impulso. Según los datos existentes hasta el momento, el sector primario se contrajo afectado por las intensas olas de calor, mientras que el sector industrial ralentizó su avance. Como resultado de todo ello, el PIB mexicano perdió siete décimas y se situó en el 1,6%. En lo que a las economías de Europa del Este respecta, estas redujeron su crecimiento ante la desaceleración de la zona del euro, mientras que en el caso de Turquía, el menor ritmo de la actividad económica está asociado a los efectos de la reciente volatilidad financiera en ese país.

En conjunto, los países de la OCDE crecieron un 2,5% y, aunque este avance es sólo una décima inferior al registrado el trimestre previo, se confirma la divergencia en el ritmo de avance de las principales economías avanzadas. Así, mientras que en Estados Unidos la actividad económica repuntó con solidez, la zona del euro y Japón crecieron por debajo de lo previsto. Los estímulos fiscales y un mercado laboral que se sitúa en pleno empleo son los principales pilares del importante crecimiento registrado por Estados Unidos. El grueso del dinamismo provino de la demanda interna, especialmente del consumo privado, apuntalado por unos salarios al alza y una todavía vigorosa inversión, pese a que perdió ritmo respecto al trimestre previo. Asimismo, destacó el fuerte comportamiento de las exportaciones, favorecidas por el adelanto de los envíos de soja hacia China, anticipando la entrada en vigor del arancel de los productos agrícolas, que se combinó con un descenso de las importaciones. Como resultado de todo lo anterior, la economía estadounidense creció un 2,9% en el segundo trimestre de 2018, su mejor registro de los tres últimos años.

Japonian, familien gastuak oraindik ez du finkatu bere papera bultzagile gisa eta osagai garrantzitsua da Abenomics estrategian, alegia, Japonia bere deflaziotik ateratzeko enpresen mozkinekin, soldaten gehikuntzekin eta prezioen igoerekin eratu nahi duten gurrpil oparoa. Kontsumo pribatuak hamarren bakar bat ekarri zion BPGaren hazkunderari eta inbertsioak zein esportazioek, bederatzina hamarren ekarri, eman zioten bultzada ekonomiarri. Lan merkatuaren bilakaera ona izan zen berriro, baina langabezia tasa zertxobait goratu zen uztaillean, %2,5 arte, maiatzean %2,2ra jaitsi eta gero. Aitzitik, lana bilatzen ari diren 100 pertsona bakoitzeko eskaintzen den lanpostuen kopurua 162ra igo da, gutxienez 44 urteko epean inoiz izan den mailarik gorena baita. Zenbaki horiek agerian uzten dute munduko hirugarren ekonomian lan esku falta areagotu dela. Joera hori are gehiago larriagotuko da etorkizunean, herrialde hartako zahartze demografikoaren ondorioz. Azkenik, prezioek eremu positiboari eutsi zioten. Uztaillean, KPIa %0,9 hazi zen.

Europar Batasunean, ekonomia jarduerak erritmo neurritsuan hazten jarraitu zuen aurtengo bigarren hiruhilekoan, 2017an hazkunde sendoa bizi eta gero. Gehikuntza txikiago horren atzean, bizitasun galera orokorra dago, zeren eta barne eskariaren zein kanpo eskariaren agregatu guztiek, gastu publikoak izan ezik, ekarpen txikiagoa egin baitzioten BPGari. Hala eta guztiz ere, bai Europar Batasuneko hazkundera bai Eurogunekoa (%2,1) garrantzitsua izan zen oraindik eta argitaratu diren azken adierazleek iradokitzen dute hirugarren hiruhilekoko hazkundera antzeko mailan kokatuko dela. Beraz, oraingoz, baztertuta geratzen da ekonomia bilakaeraren irakurketa alarmista bat.

Zehazkiago adierazita, Alemaniak aurreko hiruhilekoan eskuratutako hazkunderaren antzekoa lortu zuen. Hain zuzen ere, herrialde germaniarrak ia ez zuen tonurik galdu eta %1,9 hazi zen, aurrekoa baino hamarren bakar bat gutxiago. Kontsumo publikoaren gorakadak eta inbertsioaren bultzadak kontsumo pribatuaren bizitasun txikiagoa konpentsatu zuten. Frantziak, berriz, moteltze garbiagoa pairatu zuen, aurreko %2,1etik %1,7ra igarota. Inbertsioa egonkor hazi zen, baina familien kontsumoaren beste galera batek eta esportazioen bultzada txikiagoak hazkunde apalago hori azaltzen dute. Italia bien artean kokatu zen, beraren hazkunde tasa bi hamarrenetan gutxituz. Inbertsioa sendoa hazi zen eta kontsumoak eutsi egin zion, baina oraindik ez da suspertu eta tasa apaletan jarraitzen du. Dena dela, inportazioen gorakadak lastatu zuen hazkunderaren hazkundera.

Espainiak ere nabaritu zuen Europako ekonomia gehienetan (habetako 16tan, gutxienez) hauteman zen moteltzea, baina erritmo bizian hazten jarraitu zuen. Inflazioaren gorakadatik eratorritzen den erosteko ahalmenaren galerak –maiatzetik abuztura KPI indizea %2,0aren gainetik kokatu zen- aurrezteko ahalmena murriztu zuen eta familien kontsumoari kalte egin zion.

En Japón, el gasto de los hogares, pieza clave dentro de la estrategia Abenomics, que aspira a crear un círculo virtuoso de beneficios corporativos, incrementos salariales y subidas de precios para sacar a Japón de su largo ciclo deflacionario, no acaba de consolidar su papel tractor. Con una aportación de una única décima al crecimiento del PIB, fueron la inversión y las exportaciones, ambas con nueve décimas de contribución, las que impulsaron el crecimiento. La evolución del mercado laboral siguió siendo favorable, pese a que la tasa de paro repuntó levemente hasta el 2,5% en julio, tras reducirse hasta el 2,2% en mayo. Como contrapunto, el número de puestos de trabajo disponibles por cada 100 personas en busca de empleo ascendió a 162, el mayor nivel en más de 44 años. Estas cifras reflejan un aumento de la escasez de mano de obra en la tercera economía mundial, una tendencia que previsiblemente se verá acentuada debido al envejecimiento demográfico del país. Los precios, por último, lograron mantenerse en terreno positivo. En julio, el aumento del IPC fue del 0,9%.

En la Unión Europea, la actividad económica continuó creciendo a un ritmo moderado durante el segundo trimestre del año, después de experimentar una fuerte expansión en 2017. Este menor avance se debió a una pérdida de tono generalizada ya que, a excepción del gasto público, el resto de agregados, tanto de la demanda interna como de la externa, redujeron su aportación al PIB. Con todo, el crecimiento tanto de la Unión Europea como de la zona del euro (2,1%) siguió siendo importante y los últimos indicadores publicados sugieren que el crecimiento en el tercer trimestre se mantiene en cotas similares a las del segundo, por lo que se descarta, por el momento, una lectura alarmista de la evolución económica.

Entrando un poco más en detalles, Alemania mantuvo un ritmo de avance semejante al del trimestre precedente. En concreto, el país germano apenas perdió tono y creció un 1,9%, solo una décima por debajo del registro previo. El avance del consumo público y el tirón inversor lograron contrarrestar el menor dinamismo del consumo privado. Francia, por su parte, sufrió una desaceleración más acusada al pasar del 2,1% previo al 1,7%. La inversión se mantuvo estable, pero la nueva pérdida de tono del consumo de los hogares junto al menor impulso exportador explican este menor avance. Italia se situó entre ambas, al reducir su crecimiento en dos décimas. La inversión creció de manera vigorosa y el consumo se mantuvo estable, aunque este no acaba de repuntar y se mantiene en tasas deprimidas. Con todo, el mayor tirón importador fue el factor que lastró el crecimiento del país.

España también se vio perjudicada por la desaceleración observada en la mayoría de las economías europeas (al menos afectó a 16 de ellas), si bien siguió creciendo a buen ritmo. La pérdida de poder adquisitivo que se deriva del repunte de la inflación, que entre mayo y agosto se situó por encima del 2,0%, redujo la capacidad de ahorro y perjudicó al consumo de los hogares.



Esportazioek ere nabarmen murriztu zuten beren erritmoa, Europar Batasuneko jarduera txikiagoak baldintzatuta, hura baita merkataritzarako bazkide behinena eta hara bidaltzen baita salmenta guztien %60. Aurreko guztiaren ondorioz, ekonomia espainiarra %2,5 hazi zen. Joera horretatik aldentuta geratu ziren Portugal eta Erresuma Batua. Herrialde lusitaniarrak hazkundeari eutsi zion, barne eskariaren bilakaera onari esker, lan merkatuaren bizitasunak berau gorarazi baitzuen (uztailean, langabezia tasa %6,8an kokatu zen). Erresuma Batuak, berriz, bizitasuna zertxobait berreskuratu zuen, sei hilekoz jarraian moteltzen aritu eta gero. Hain zuzen ere, bertako ekonomia zertxobait suspertu zen bigarren hiruhilekoan (%1,2tik %1,3ra) eguraldi onak txikizkako merkataritzan eta eraikuntzan izan zuen eragin positiboagatik.

Las exportaciones también vieron reducida de manera importante su ritmo, condicionadas por la menor actividad de la Unión Europea, su principal socio comercial, al que se destina el 60% del total de las ventas. Como resultado de todo ello, la economía española creció un 2,5%. Alejados de esta tendencia se situaron Portugal y el Reino Unido. El país luso continuó creciendo gracias a la buena evolución de su demanda interna, que se vio a su vez apoyada por el dinamismo del mercado laboral (la tasa de paro de julio se situó en el 6,8%). El Reino Unido, por su parte, recuperó algo de dinamismo tras seis meses de desaceleración. En concreto, la economía repuntó levemente en el segundo trimestre (del 1,2% al 1,3%) ante el impacto positivo del buen tiempo en las ventas minoristas y la construcción.

## Espainiako ekonomia. Taula makroekonomikoa

## Economía española. Tabla macroeconómica

## Urte arteko aldakuntza tasak

## Tasas de variación interanual

	2017	2017			2018		
		II	III	IV	I	II	
Azken kontsumo gastua	2,4	2,3	2,4	2,7	2,9	2,2	Gasto consumo final
- Familien gastua	2,5	2,5	2,6	2,7	3,1	2,3	- Gasto de los hogares
- Administrazio gastua	1,9	1,7	2,0	2,6	2,4	1,9	- Gasto administración
KFEG	5,4	3,9	6,7	6,2	4,3	7,8	FBCF
Nazio eskaria (*)	2,9	2,6	3,2	3,3	3,1	3,3	Demanda nacional (*)
Esportazioak	5,2	5,4	5,4	4,2	3,4	2,3	Exportaciones
Inportazioak	5,6	4,4	7,0	5,4	4,7	5,2	Importaciones
<b>BPG (m.p.)</b>	<b>3,0</b>	<b>3,1</b>	<b>2,9</b>	<b>3,1</b>	<b>2,8</b>	<b>2,5</b>	<b>PIB (p.m.)</b>
Nekazaritza eta arrantza	-0,9	-2,5	-0,8	0,4	2,2	3,2	Agricultura y pesca
Industria	4,4	4,2	4,0	4,9	2,6	2,5	Industria
Eraikuntza	6,2	6,5	6,0	6,8	7,4	7,1	Construcción
Zerbitzuak	2,5	2,6	2,5	2,5	2,5	2,3	Servicios
Produk. g/ zerga garbiak	3,3	4,2	3,1	2,7	2,9	1,0	Impuest. netos produc.

2010 oinarri urtea. (\*) BPGaren hazkundeari eginiko ekarpena.

Iturria: INE.

Base 2010. (\*) Aportación al crecimiento del PIB.

Fuente: INE.

Lan merkatuari dagokionez, Europar Batasuneko langabezia tasa %6,8an geratu zen abuztuan, 2008ko apiriletik jaso den txikiena baita. Horrek esan nahi du oraindik 16.657.000 lagun daudela oraindik lanik gabe. Espainiak izan zuen berriro, Greziaren ondoren, tasa altuena, abuztuan %15,2 batekin.

En cuanto al mercado laboral, la tasa de paro de la Unión Europea se fijó en agosto en el 6,8%, el menor registro desde abril de 2008, lo que supone que 16.657.000 personas siguen desempleadas. España volvió a erigirse como el país con mayor tasa de paro, detrás de Grecia, al anotar un 15,2% en agosto.





**2.2. Ekoizpena eta Enplegua**  
*Producción y Empleo*



2018ko hasieran izan zuen gorakadaren ondoren, bigarren hiruhilekoan EAeko ekonomiak moteltzeko prozesu arin bati hasiera eman zion eta %3,1 haztetik %2,9ra igaro zen. Hazkunde erritmo txikiago hori aurreikusita zegoen aurreko txostenean aurkeztu zen taula makroekonomikoan. Beraz, ekonomiaren bilakaerak aurreikusitako gidoiari jarraitu dio. Lortutako emaitza esanguratsua da, ez bakarrik bere tamainagatik, 2017an eskuratu zuen batez bestekoa berdindu baitu, baita ingurune herrialdeekiko alderaketatik ere, kasu askotan bilakaera ez baita horren positiboa. Izan ere, ekonomia espainiarrak hiru hamarretan gutxitu zuen aldakuntza tasa, %2,7ra arte, eta Euroguneak %2,1ean utzi zuen gehikuntza. Kasu horretan, hirugarren hiruhilekoz jarraian gutxitu du urte arteko hazkundera.

Tras el repunte del inicio de 2018, en el segundo trimestre la economía vasca inició un proceso de suave desaceleración y pasó de crecer al 3,1% a registrar un 2,9%. Este menor ritmo de crecimiento estaba previsto en el cuadro macroeconómico presentado en el informe anterior, por lo que la evolución de la economía se ajusta al guion previsto. El resultado conseguido es significativo, no solo por su intensidad, que lo sitúa en línea con la media alcanzada en el año 2017, sino por su comparación con los países del entorno, que en muchos casos ofrecen evoluciones menos favorables. Así, la economía española moderó tres décimas su tasa de variación hasta el 2,7%, mientras que la zona del euro situó su avance en el 2,1%. En este caso, es el tercer trimestre consecutivo en el que reduce su incremento interanual.

## Eskaintzaren aldagaiak

## Variables de la oferta

## Urte arteko aldakuntza tasak

## Tasas de variación interanual

	2016	2017	2017			2018		
			II	III	IV	I	II	
<b>BPG erreala</b>	<b>3,3</b>	<b>2,9</b>	<b>2,9</b>	<b>3,0</b>	<b>3,0</b>	<b>3,1</b>	<b>2,9</b>	<b>PIB real</b>
Nekazaritza eta arrantza	1,0	6,8	9,6	9,6	-2,7	-3,0	0,8	Agricultura y pesca
Industria eta energia	4,2	3,1	2,9	3,0	3,5	3,7	3,1	Industria y energía
- Manufaktura industria	4,3	3,2	3,0	2,9	3,4	3,9	3,1	- Ind. manufacturera
Eraikuntza	0,2	3,8	3,9	4,7	4,0	2,7	4,1	Construcción
Zerbitzuak	2,8	2,7	2,8	2,8	2,7	3,1	2,8	Servicios
- Merkat., ostal, garraioa	3,6	4,0	4,0	4,1	3,6	3,1	2,7	- Comercio, hostel.transp
- AA. PP., hezk., osasuna	2,4	2,2	2,4	2,2	2,4	2,9	2,3	- AA. PP., educ. y sanidad
- Gainontzeko zerbitzuak	2,5	2,2	2,3	2,2	2,3	3,1	3,0	- Resto de Servicios
Balio erantsi gordina	3,0	2,9	2,9	3,0	2,9	3,1	2,9	Valor añadido bruto
Ekoinzkin g/ zerga garbiak	6,8	2,8	2,5	2,7	3,3	3,1	2,8	Impuest. netos s/ produc.

Iturria: Eustat.

Fuente: Eustat.

Ekonomiaren analisisa sektoreka egiten denean, agerian geratzen da hazkunderaren moteltzea industrian eta zerbitzuetan gauzatu dela. Hala eta guztiz ere, bi kasuetan lehen hiruhilekoaren datua aurrekoak baino askoz ere altuagoa izan zen. Beraz, bigarren hiruhilekoarena, bizitasunaren galera baino gehiago, 2017ko balioetara itzultzea izan da. Izan ere, industriaren balio erantsia %3,1 handitu zen bigarren hiruhilekoan, 2017ko batez bestekoa berdinduz, nahiz eta lehen hiruhilekoko emaitza bikaina (%3,7) baino sei hamarren txikiagoa den. Manufakturen bilakaera (%3,1) eta industriaren gainontzeko jarduerena oso antzekoa izan zen bigarren hiruhilekoan.

El análisis de la economía por sectores de actividad indica que la moderación en el crecimiento se ha producido en la industria y en los servicios. Sin embargo, en ambos casos el dato del primer trimestre fue significativamente mejor que los anteriores, con lo que el segundo trimestre, más que una pérdida de intensidad es una vuelta a los valores de 2017. En efecto, el valor añadido de la industria aumentó en el segundo trimestre un 3,1%, el mismo valor que la media de 2017, aunque sea seis décimas inferior al excelente dato del primer trimestre (3,7%). La evolución de las manufacturas (3,1%) y del resto de actividad industrial fue similar en el segundo trimestre.

Industria arloaren koiunturako adierazleek iradokitzen dute sektoreak agian bizitasun pixka bat galdu duela, baina hazkundera oraindik nabarmena den testuinguru batean. Izan ere, industria ondasunen ekoizpenak bi hiruhileko kateatu ditu gehikuntza tasak gutxitzen, %2,2an kokatu arte. Estatistika horren arabera, emaitza onenak ekipamendurako ondasunek eskuratzen dituzte, inbertsioari lotuta baitaude, %6,7ko igoera jaso zutelako, aurreko balioen oso gaitetik. Tamaina txikiagokoa da, baina positiboa hau ere, bitarteko ondasunen ekoizpenaren urte arteko tasa (%1,1). Aitzitik, bilakaera negatiboa da energiaren ekoizpenean (%-2,9), nahiz eta jarduera horrek gorabehera handiak izaten dituen une jakin batzuetan, eta baita kontsumoko ondasunetan ere (%-1,3). Azken talde horren barnean, desberdindu behar dira kontsumo iraunkorreko ondasunen zailtasunak (%-12,0) eta kontsumo iragankorreko ondasunen susperraldia (%2,9), hainbat hiruhilekotan tasa negatiboak edo oso txikiak jaso ondoren.

Los indicadores coyunturales del sector industrial sugieren que el sector puede estar perdiendo algo de dinamismo, pero en un contexto de crecimiento todavía notable. Así, la producción de bienes industriales encadena dos trimestres de menor incremento hasta situarse en el 2,2%. Según esta estadística, los mejores resultados los consiguen los bienes de equipo, ligados a la inversión, que anotaron una subida del 6,7%, muy por encima de los valores anteriores. Con menor intensidad, pero también en positivo, se encuentra la producción de bienes intermedios, con un 1,1% interanual. Por el contrario, la evolución es negativa (-2,9%) en la producción de energía, si bien esta actividad suele tener grandes oscilaciones puntuales, y en la de bienes de consumo (-1,3%). Dentro de este último grupo, hay que diferenciar las dificultades de los bienes de consumo duradero (-12,0%) del dinamismo recuperado por los bienes no duraderos (2,9%), tras varios trimestres en negativo o con aumentos muy reducidos.

	Jarduera adierazleak		Indicadores de actividad					
	Urte arteko aldakuntza tasak		Tasas de variación interanual					
	2016	2017	2017			2018		
			II	III	IV	I	II	
<b>Industria</b>								<b>Industria</b>
Industria produkzio ind.	2,3	3,0	2,6	3,0	3,7	3,5	2,2	Índ. produc. industrial
Negozio zifren indizea	0,4	9,4	4,5	10,2	9,5	7,0	11,1	Cifra de negocios
Eskarrien sarrera	2,5	6,5	7,2	11,2	11,6	7,7	5,4	Entradas de pedidos
Gizarte Seg. afiliazioa	1,7	1,8	1,8	1,6	1,7	1,9	1,9	Afiliación a la SS
<b>Eraikuntza</b>								<b>Construcción</b>
Koiunturako indizea	2,1	5,9	6,2	2,0	6,4	6,7	13,1	Índice coyuntural
Etxe berrietarako bisatuak	-13,4	26,7	4,6	103,1	25,9	-5,9	---	Visados vivienda nueva
Etxebizitzten salerosketak	12,2	11,4	7,5	19,0	10,6	9,4	5,1	Compraventa viviendas
Gizarte Seg. afiliazioa	0,0	1,8	1,6	1,6	2,0	2,7	3,4	Afiliación a la SS
<b>Zerbitzuak</b>								<b>Servicios</b>
Hegazki bidezko bidaiariak	7,6	9,2	12,2	5,4	14,2	11,7	9,6	Tráfico aéreo pasajeros
Hoteletan gaualdiak	8,9	2,6	8,1	-0,9	2,7	9,3	5,7	Pernoctaciones hoteleras
Negozio zifren indizea	3,7	4,4	4,0	2,9	5,2	7,5	7,8	Índice cifra negocios
Zerbitzuen koiuntura ind	2,9	1,8	1,3	1,8	2,0	2,7	2,2	Índ. coyuntural servicios
Gizarte Seg. afiliazioa	2,2	2,2	2,4	2,2	2,2	2,4	2,1	Afiliación a la SS

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, INE, Sustapen Ministerio, Gizarte Segurantzak eta AENAREN datuetan oinarrituta.

Fuente: Elaboración de la Dirección de Economía y Planificación según datos del Eustat, INE, Ministerio de Fomento, Seguridad Social y AENA.

Industriaren negozio zifrak oso gehikuntza tasa esanguratsua lortu zuen bigarren hiruhilekoan (%11,1), EAEko industriak bizi duen egoera ona baieztatzen duena. Hala ere, muga zergetan AEBek ezarri nahi duten politikak sortu duen ziurgabetasunak ondorio kaltegarriak izan ditzake jadanik EAEko enpresetan ere. Izan ere, eskari berriei buruzko informazioak adierazten du urtean zehar gutxitzen ari direla eskaera berrien bizitasuna. Norabide horretan, puntu apalena uztailean gertatu zen, hileko horretan aurreko urteko kopuruaren aldean jaitsiera txikia (%-0,3) eskuratu zelako.

Eraikuntzak atzean utzi zuen lehen hiruhilekoan bizi zuen moteltzea eta %4,1 handitu zuen balio erantsia bigarrean. Tasa horrek gaintitzen du 2017an lortutako batez besteko hazkunde eta baieztatzen du sektorearen une gozoa. Eraikuntzaren bizitasunaren oinarrian, eraikinen atalak duela hiruhileko batzuetatik hona bizi duen egoera positiboari aurten obra zibilaren susperraldia gehitu izana dago. Zehatz-mehatz adierazita, eraikuntzaren koiuntura indizeak seinatzen du eraikinen atala bigarren hiruhilekoan %13,7 hazi zela eta obra zibilarena, berriz, %8,1.

Zerbitzuetako jarduerak joera hedatzaileari eutsi zioten aurtengo bigarren laurdenean, beren balio erantsia %2,8 handituta. Tasa hori lehen hiruhilekoan jaso zen emaitza bikainaren hiru hamarren beherago dago, baina 2017 osoan eskuratutakoaren antzekoa da. Sektorea osatzen duten hiru talde nagusiek bizi zuten bizitasun galera hori lehen hiruhilekoaren aldean. Alde batetik, merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen taldeak %2,7ko urte arteko tasa jaso zuen, aurreko datua baino lau hamarren gutxiago. Beste aldetik, administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak batzen dituenak %2,3 handitu zuen balio erantsia, lehen hiruhilekoan baino sei hamarren gutxiago, nahiz eta 2017ko %2,2aren antzekoa izan. Azkenik, gainontzeko zerbitzuek %3,0ko gehikuntza eskuratu zuten, lehen hiruhilekoan baino hamarren bakar bat gutxiago eta 2017ko batez bestekoa baino askoz ere gehiago.

Zerbitzuetako balio erantsiaren bilakaera osatzeko, sektorearen beste informazio osatuagoa erabiliko da, hala nola Eustatek argitaratzen duen zerbitzuen koiuntura indizea. Estatistika horrek adierazten du bai merkataritzak bai gainontzeko jarduerak joera biziari eutsi ziotela bigarren hiruhilekoan. Hain zuzen ere, merkataritzaren blokea %2,2 hazi zen termino errealean, ibilgailuen salmentaren bultzada handiari esker (%8,3), neurri batean kontzesionarioek isurien araudi berria indarrean sartu baino lehen dauzkaten stockak saldu nahi dutelako. Handizkako merkataritzak ere irudi dinamiko eskaini du (%2,2), baina txikizkakoak atzerakada txikia (%-0,1) pairatu zuen. Jardueren beste blokean, ostalaritzak (%3,2), garraioak (%2,8) eta jarduera administratiboak eta zerbitzu laguntzaileak (%3,3) izan zituzten emaitza onak azpimarratu behar dira. Aitzitik, informazioa eta komunikazioek (%-1,5) emaitza negatiboak eskuratu zituzten berriro.

La cifra de negocios de la industria registró un incremento muy significativo en el segundo trimestre (11,1%), que confirma la buena situación que vive la industria vasca. Sin embargo, la incertidumbre que ha generado la política de aranceles de Estados Unidos puede estar pasando factura también a las empresas vascas del sector. En efecto, la información correspondiente a la entrada de pedidos indica que a lo largo del año se ha ido produciendo una pérdida de intensidad en los nuevos encargos, que ha tenido su punto más bajo en el mes de julio, con un ligero descenso (-0,3%) respecto a la entrada conseguida el año anterior.

La construcción dejó atrás la desaceleración vivida en el primer trimestre y consiguió incrementar su valor añadido un 4,1% en el segundo, una cifra que mejora el crecimiento medio alcanzado en 2017 y que confirma el dinamismo del sector. La clave del empuje de esta actividad se encuentra en que al buen momento que vive la edificación desde hace unos trimestres se le une este año la recuperación de la obra civil. Más en detalle, el índice de coyuntura de la construcción señala que la edificación aumentó en el segundo trimestre un 13,7% y que la obra civil creció un 8,1%.

Las actividades terciarias mantuvieron un tono expansivo en el segundo cuarto del año, con un aumento del valor añadido del 2,8%, una cifra que está tres décimas por debajo del excelente primer trimestre, pero que es similar a la conseguida en el conjunto de 2017. La pérdida de dinamismo respecto al primer trimestre se ha vivido en los tres grandes grupos que componen el sector. Por un lado, comercio, hostelería y transporte alcanzó una tasa interanual del 2,7%, cuatro décimas por debajo del dato anterior. Por otro, el bloque de administración pública, educación, sanidad y servicios sociales aumentó su valor añadido un 2,3%, seis décimas menos que en el primer trimestre, aunque en línea con el 2,2% de 2017. Por último, el resto de servicios consiguió un incremento del 3,0%, a tan solo una décima del dato del primer trimestre y sensiblemente por encima de la media de 2017.

La evolución del valor añadido de los servicios se complementa con otra información sectorial más completa, como es el índice de coyuntura de los servicios, elaborado por el Eustat. Esta estadística indica que tanto el comercio como el resto de actividades mantuvieron un tono expansivo notable en el segundo trimestre. Así, el bloque de comercio creció un 2,2% en términos reales, gracias al fuerte impulso de la venta de vehículos (8,3%), en parte por la necesidad de los concesionarios de eliminar los stocks antes de que entre en vigor la nueva normativa sobre emisiones. También el comercio al por mayor ofrece una imagen dinámica (2,2%), mientras que el minorista sufrió un ligero retroceso (-0,1%). En el otro bloque de actividades, destacan los buenos resultados de hostelería (3,2%), transporte (2,8%) y actividades administrativas y servicios auxiliares (3,3%), mientras que información y comunicaciones (-1,5%) sigue encadenando resultados negativos.


Sektorearen bizitasuna negozioen zifran ere hautematen da, %7,8ko gehikuntza nominala lortu zuelako, seriearen aurreko balio guztiak gaudituz. Beste informazio gehigarri batek, turismoaren adarrari lotutakoak, jarduera adar horren bizitasunak bere horretan jarraitzen duela erakusten du. Izan ere, hegazkinez bidaiatu diren lagunen kopurua %9,6 areagotu zen bigarren hiruhilekoan eta zenbaki errekorra lortuko du urteko balantzean, 5,5 milioi bidaiaria baino gehiago lortuta. Orobat, hoteletan igarotako gaualdiak %5,7 hazi ziren epealdi horretan, dagoeneko ezagunak diren uztailera eta abuztuko datuak antzekoak direlarik.

Ekoiaren moteltzeak ia ez zuen inolako eraginik izan enpleguaren bilakaeran, BPGaren aldakuntzen aurrean nolabaiteko atzerapenarekin erantzuten duelako. Bigarren hiruhilekoan, lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopurua %2,1 hazi zen urte arteko tasan, aurreko hiruhilekoetan jasotako balioen antzekoa baita. Tasa horrek esan nahi du azken urtebetean EAEko ekonomiak 20.000 enplegu garbi sortu dituela eta dagoeneko 956.000 lanpostu dauzkala guztira. Kopuru hori azken bederatzi urteko altuena da. Halere, oraindik 45.000 enplegu gehiago sortu behar dira krisiaren aurreko zifra berreskuratzeko.

La intensidad del sector se aprecia también en la cifra de negocios, que anotó un incremento nominal del 7,8%, por encima de todos los valores anteriores de la serie. Otra información adicional, ligada al sector turístico, muestra un mantenimiento del dinamismo de esa rama de actividad. Así, el tráfico de pasajeros en avión aumentó un 9,6% en el segundo trimestre y conseguirá cifras récord para el conjunto del año, con más de 5,5 millones de desplazamientos. Además, las pernoctaciones en establecimientos hoteleros subieron un 5,7% en ese periodo y una cifra similar en los meses de julio y agosto, ya conocidos.

La desaceleración de la producción apenas tuvo incidencia en la evolución del empleo, puesto que suele responder con cierto retraso a las variaciones del PIB. En el segundo trimestre, el número de puestos de trabajo equivalentes a tiempo completo aumentó un 2,1% interanual, un valor muy similar a los de los trimestres anteriores. Esa tasa significa que en el último año la economía vasca ha generado 20.000 empleos netos y que el total de puestos de trabajo con los que cuenta supera ya los 956.000, la cifra más elevada de los últimos nueve años, aunque serán necesarios otros 45.000 empleos para recuperar la cifra que existía antes de la crisis.

**Enpleguaren bilakaera** **Evolución del empleo**  
**Urte arteko aldakuntza tasak** **Tasas de variación interanual**



Iturria: Eustat eta Gizarte Segurantzak.

Fuente: Eustat y Seguridad Social.

Azken hiruhilekoetan ohikoa izan denez, aldakuntza tasa altuena eraikitzen enpleguak lortu zuen (%3,4). Are gehiago, tasa hori da sektoreak 2007tik inoiz eskuratu duen gorenena. Horri esker, sektorearen lanpostuen kopurua ia 2.000tan handitu da azken urtebetean. Hala eta guztiz ere, zerbitzuek sortzen dituzte enplegu gehienak. Zehatz-mehatz adierazita, azken hamabi hilekoetan sortutako lanpostu guztietatik 14.500 sektore horretan gauzatu ziren, urte arteko aldakuntza tasa %2,2 izan zelarik. Azkenik, industriak %1,8 handitu zuen bere enplegua, 3.500 lanpostu garbi sortuta.

Como viene siendo habitual en los últimos trimestres, la tasa de variación más elevada fue registrada por el empleo en la construcción (3,4%), que es, además, la más alta que este sector haya registrado desde 2007. Gracias a ello, su número de puestos de trabajo ha aumentado en cerca de 2.000 en el último año. Sin embargo, son los servicios los que generan el mayor número de empleos. En concreto, del total generado en los últimos doce meses, 14.500 se concentraron en ese sector, que consiguió una tasa de variación del 2,2%. Por último, la industria aumentó un 1,8% su empleo, con 3.500 puestos de trabajo netos.


Bigarren hiruhilekoan oraindik enplegu sorreran tonu galerarik hautematen ez bazen ere, hirugarrenerako jadanik eskuragarri dagoen informazioak pentsarazten du moteltze hori lan merkatuan ere gauzatzen ari dela. Gizarte Segurantzako afiliazioaren datuen arabera, hirugarren hiruhilekoaren batez besteko gehikuntza tasa %1,8 izan zen, bigarren hiruhilekoarena baino hiru hamarren gutxiago. Eraikuntzak bere afiliatuen kopurua oso nabarmen handitu duen arren, beste jarduera batzuetan gehikuntza erritmoa garbi leundu da. Esate baterako, osasun arloko jardueretan afiliazioaren hazkundera bigarren hiruhilekoaren %3,6tik udako hilekoen %3,0ra gutxitu da. Orobat, ostalaritzak ia erdira murriztu du bere tasa, bigarren hiruhilekoaren %2,0tik azken hiru hilekoen %1,3ra. Jarduera administratiboak eta zerbitzu laguntzaileak biltzen dituen adarrak ere enplegua sortzeko gaitasuna gutxika-gutxika galtzen ari da.

Oraindik onak diren enpleguaren datuek lagundu dute langabezia tasaren bilakaeran, bigarren hiruhilekoan %10,1ean kokatu baitzen, hots, Eusko Jaurlearitzak ezarri zuen %10,0aren azpian kokatzeko helburutik oso hurbil. Hala ere, gogoratu behar da langabezia tasa bi aldagaik baldintzatzen dutela: enplegu sorrera eta lan merkatuan parte hartzen dutenen kopurua. Enplegua eskatzen duten pertsonen kopurua igotzen bada, ekonomiak sortzen dituen lanpostuen eskaintza areagotzen delako, helburu hori lortzeko unea atzeratu daiteke.

Si bien en el segundo trimestre todavía no se apreciaba una pérdida de tono en la generación de empleo, la información ya disponible para el tercero hace pensar que esa desaceleración podría estar gestándose ya también en el mercado de trabajo. A tenor de los datos de afiliación a la Seguridad Social, en el tercer trimestre el incremento medio fue del 1,8%, tres décimas inferior al registro del segundo trimestre. A pesar de que la construcción acelera notablemente su aumento de personas afiliadas, otras ramas de actividad moderaron sensiblemente su ritmo de avance. Así, las actividades sanitarias han pasado de aumentar su afiliación un 3,6% durante el segundo trimestre a un 3,0% en los tres meses de verano. De igual manera, la hostelería reduce casi a la mitad su tasa, desde el 2,0% del segundo trimestre al 1,3% de los tres últimos meses. Las actividades administrativas y servicios auxiliares son otra rama que está perdiendo intensidad en su capacidad de generar empleo.

Los todavía buenos resultados en materia de empleo se traducen en una evolución favorable de la tasa de paro, que en el segundo trimestre se situó en el 10,1%, muy cerca ya del objetivo del Gobierno Vasco de reducirla por debajo del 10,0%. No obstante, hay que recordar que la tasa de paro depende de la generación de empleo y de la participación de las personas en el mercado laboral. Una mayor afluencia de nuevos demandantes de empleo, atraídos precisamente por la mayor oferta de puestos de trabajo que crea la economía, podría retrasar la consecución de ese objetivo.





**2.3. Barneko eta kanpoko eskaria**  
*Demanda interna y externa*



EAEko ekonomiak bigarren hiruhilekoan ezagutu zuen moteltzea kanpo eskariaren aldetik iritsi zen osorik, barne eskariak urte hasierako aldakuntza tasa berdindu zuen bitartean. Hain zuzen ere, barne eskariaren hazkunde tasa %3,0 izan zen aurtengo lehen bi hiruhilekoetan eta zenbaki bera lortu zuen 2017. urteko batez bestekoan. Horrek agerian uzten du magnitude ekonomiko horren egonkortasuna. Beste aldetik, kanpo saldoak ekarpen positiboak eta kenketa txikiak tartekatzen ditu aldika. Horixe da, hain zuzen ere, orain gertatu dena: lehen hiruhilekoan ia hamarren bateko ekarpen positiboa egin ondoren, bigarren kanpo saldoak bi hamarren inguru kendu dizkio BPGari. Hiruhileko horretan, esportazioek 1,5 puntu ekarri zioten BPGari, baina inportazioek 1,7 puntu kendu zizkieten.

Oro har, barne eskariak hazkundera eutsi bazion ere, portaera kontrajarriak hauteman ziren berau osatzen duten bi osagaien artean. Izan ere, azken kontsumoan eginiko gastuak hiru hamarrenetan leundu zuen bere hazkunde erritmoa, %2,5 arte. Aldi berean, kapital eraketa gordinak ordurako bizia zen bilakaera areagotu zuen eta %4,8ko aldakuntza tasa jaso zuen, aurreko balioak nabarmen gaindituz. Inbertsioan oinarritzen den hazkunde eredu hori osasungarriagoa da kontsumoan oinarritutakoa baino, ekonomia eragileen zorpetzea (bereziki familia eta administrazioarena) saihesten duelako eta etorkizuneko hazkunderaren oinarriak ezartzen dituelako, produktibitatea hobetuz.

La desaceleración que la economía vasca conoció en el segundo trimestre provino exclusivamente de la demanda externa, mientras que la demanda interna igualó su tasa de variación a la del inicio del año. Efectivamente, la demanda interna creció en los dos primeros trimestres a un ritmo del 3,0%, la misma cifra que obtuvo en el conjunto de 2017. Ello muestra la estabilidad de esa magnitud económica. Por su parte, el saldo exterior alterna pequeñas aportaciones positivas con ligeras detracciones. Esto es, precisamente, lo que ha pasado ahora: tras una aportación de casi una décima en el primer trimestre, en el segundo el saldo exterior ha restado cerca de dos al PIB. Ese trimestre, las exportaciones aportaron al PIB 1,5 puntos, pero las importaciones restaron 1,7 puntos.

A pesar de que la demanda interna, en conjunto, se mantuvo estable, se aprecian comportamientos contrapuestos en sus dos componentes principales. Así, el gasto en consumo final suavizó tres décimas su ritmo de crecimiento hasta el 2,5%, al tiempo que la formación bruta de capital acentuó su ya de por sí intensa evolución hasta registrar una tasa del 4,8%, muy por encima de sus valores anteriores. Este modelo de crecimiento basado en la inversión es más sano que el basado en el consumo, porque evita el endeudamiento de los agentes económicos (especialmente de las familias y la administración) y porque pone las bases para el crecimiento del futuro, al mejorar la productividad.

	Eskariaren aldagaiak		Variables de la demanda					
	Urte arteko aldakuntza tasak		Tasas de variación interanual					
	2016	2017	2017			2018		
			II	III	IV	I	II	
<b>BPG erreala</b>	<b>3,3</b>	<b>2,9</b>	<b>2,9</b>	<b>3,0</b>	<b>3,0</b>	<b>3,1</b>	<b>2,9</b>	<b>PIB real</b>
Gastua azken kontsumoan	3,0	2,9	2,8	2,9	2,8	2,8	2,5	Gasto en consumo final
- Familien gastua kontsu.	3,3	3,0	3,0	3,0	2,9	2,9	2,6	- Consumo de los hogares
- AA.PP. kontsumoa	1,8	2,4	2,0	2,5	2,7	2,6	2,0	- Consumo de las AA. PP.
Kapital eraketa gordina	5,5	3,3	2,5	2,8	3,7	3,7	4,8	Formación bruta de capital
- Ekipamendu ondasunak	8,6	3,2	2,0	1,9	3,4	4,8	6,1	- Bienes de equipo
- Gainontzeko inbertsioa	3,8	3,4	2,8	3,3	3,9	3,0	4,0	- Resto de inversión
Barne eskaria	3,6	3,0	2,7	2,9	3,0	3,0	3,0	Demanda interna
Esportazioak	1,8	4,7	3,6	5,6	6,8	6,7	2,2	Exportaciones
Inportazioak	2,2	4,8	3,3	5,4	6,9	6,4	2,4	Importaciones

Iturria: Eustat.

Fuente: Eustat.

Kontsumo pribatua %2,6 hazi zen bigarren hiruhilekoan, aurreko epealdian baino hiru hamarren gutxiago. Kontsumoa baldintzatzen duten faktore nagusiak ia aldaketarik gabe mantendu ziren arren, gertatu zen moteltze hori. Zehatz-mehatz adierazita, enplegua, soldatak eta familien aberastasuna aurreko epealdiko erritmo bertsuan hazi ziren. Hala eta guztiz ere, kontsumoko prezioen garestitzeak gastatzeko ahalmena murriztu du. Orobat, krisiaren garaian atzeratu ziren eta azken urteetan kontsumo pribatuari bultzada gehigarria eman dioten erosketa haietako asko dagoeneko eginda daude. Horren ondorioz, aldakuntza tasa hurbilago egongo da orain enpleguaren eta soldata errealeen gehikuntzara. Beste aldetik, kontsumo pribatua BPGaren azpitik hazten ari da nabarmen, beraz ekonomia eragileen gehiegizko zorpetzerik ez da gauzatzen ari. Urrats gehiago eman behar dira gehiegizko zorpetzeak dakarren desoreka zuzentzeko, etorkizunean biziko den ekonomiaren hazkunde txikiagoko fase bati hobeto aurre egin ahal izateko.

Kapital eraketa gordina berriro izan zen barne eskariaren osagairik dinamikoa, urte arteko aldakuntza tasa %4,8an kokatuta, aurreko balioen oso gainetik. Agregatu horren ezaugarri nagusia da ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioak erritmo bizia (%6,1) berreskuratu duela eta gainontzeko inbertsioa (%4,0) horri gehitu zaiola, eraikuntzan eginiko inbertsioaren bultzada sendoari esker.

El consumo privado creció un 2,6% en el segundo trimestre, tres décimas menos que en el periodo anterior. Esta moderación se produce a pesar de que los condicionantes principales del consumo se mantuvieron prácticamente sin alteraciones. En concreto, el empleo, los salarios y la riqueza de las familias aumentaron prácticamente al mismo ritmo del periodo anterior. Sin embargo, el encarecimiento de los precios de consumo ha reducido la capacidad de gasto. Además, buena parte de las compras que se postergaron durante la crisis y que han dado en los últimos años un impulso adicional al consumo privado ya se han realizado, por lo que la tasa de variación se acerca ahora más al incremento del empleo y de los salarios reales. Por otro lado, el consumo privado crece claramente por debajo del PIB, por lo que no se produce un sobreendeudamiento de los agentes económicos. Dar pasos adicionales en la corrección del desequilibrio que supone el excesivo endeudamiento es importante de cara a una futura fase de menor crecimiento de la economía.

La formación bruta de capital volvió a ser el componente de la demanda interna más dinámico, con una tasa de variación interanual del 4,8%, muy por encima de los valores anteriores. La clave de este agregado se encuentra en una inversión en bienes de equipo que ha recuperado un ritmo muy intenso (6,1%) a la que se ha sumado el resto de la inversión (4,0%), gracias al fuerte impulso de la inversión en construcción.

## Kontsumo eta inbertsio adierazleak

## Indicadores de consumo e inversión

## Urte arteko aldakuntza tasak

## Tasas de variación interanual

	2016	2017	2017			2018		
			II	III	IV	I	II	
<b>Kontsumoa</b>								<b>Consumo</b>
Azalera handi. salmentak	1,9	2,1	1,5	3,3	1,4	2,4	2,2	Ventas grandes superfic.
Txikizkako merkat. indizea	1,7	0,8	0,7	2,6	0,1	0,8	-0,1	Índ. comercio minorista
Kontsumo ond. ekoizpena	0,2	2,6	4,0	1,1	2,2	-0,3	-1,3	Produc. bienes consumo
Kontsumo ond. inportazioa	-0,5	4,2	-5,2	8,8	7,1	-1,7	-4,7	Import.bienes consumo
Turismoen matrikulazioa	5,3	7,3	2,0	5,2	13,7	12,8	8,6	Matriculación de turistas
<b>Inbertsioa</b>								<b>Inversión</b>
Ekipo ond. ekoizpena	8,7	-0,2	-0,9	-3,3	2,8	5,3	6,6	Produc. bienes equipo
Ekipo ond. inportazioa	13,4	5,5	0,6	9,2	3,1	6,3	10,6	Import.bienes equipo
Zama ibilgailuen matrik.	3,6	7,8	-3,5	11,9	15,9	7,8	38,3	Matricul.vehículos carga
Etxebizitza berri. bisatuak	-13,4	26,7	4,6	103,1	25,9	-5,9	88,5	Visados nuevas viviendas
Lizitazio ofiziala	-18,0	75,1	129,0	35,1	252,4	53,4	3,1	Licitación oficial

*Iturri: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, Aduanen, Sustapen Ministerioaren, Seopanen eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta*

*Fuente: Elaboración de la Dirección de Economía y Planificación según datos del Eustat, Aduanas, Ministerio de Fomento, Seopan y DGT.*

Inbertsioaren jardueri lotuta dauden koiunturako datuek agregatuaren hazkunde gero eta biziagoa baieztatzen dute. Zentzu horretan, oso esanguratsua da aurtengo lehen erdian gauzatu den ekipamendurako ondasunen inportazioaren gehikuntza, batez ere bigarren hiruhilekoan, epealdi horretan %10,6 handitu zirelako, aurreko balioen oso gainetik. Orobat, ondasun mota horren ekoizpena, tokiko enpresak neurri batean bakarrik hornitzen baitu, %6,6 garrantzitsu bat hazi zen. Azkenik, zamaketarako ibilgailuen matrikulazioak (kamioiak, furgonetak eta traktoreak) gehikuntza nabarmena lortu zuen. Eraikuntzaren inbertsioarekin lotzen diren aldagaiek, gorabehera handiak izaten dituzten arren, iradokitzen dute sektoreak gaur eguneko bizitasunari eutsiko diola denbora batez. Izan ere, bizitegi berriak eraikitzeak bisatuek %30,0aren inguruko gehikuntza metatua dute aurtengo lehen zazpi hilekoetan eta lizitazioa, berriz, %11,9 hazi da. Hala eta guztiz ere, bi aldagai horiek oso maila apaletatik abiatu dira eta urrun daude krisiaren aurreko zenbakietatik.

Aipatua izanenez, EAeko ekonomiaren moteltze leuna kanpo arloaren zeinu aldaketak eragin zuen, lehen hiruhilekoan ia hamarren bat ekartzetik bigarrenen bi hamarren inguru kentzera igaro zelako. Aldaketa hori jardura gutxiagoko epealdi batean etorri da, hala esportazioetan nola inportazioetan. Lehenengoak %2,2 areagotu ziren termino errealetan eta bigarrenak, berriz, %2,4ra iritsi ziren. Termino nominaletan, beraien aldakuntza tasak, hurrenez hurren, %4,3 eta %5,4 izan ziren. Horrek esan nahi du aldagai horien salneurriak ia ezer ez igotzetik iguera neurritsuak jasotzera igaro direla.

Merkataritza salerosketen leuntzea agerian geratzen da atzerrian (Estatuko gainontzeko erkidegoak kenduta) saldutako ondasunak (zerbitzuak kenduta) aztertzen direnean. Kasu horretan, esportazioak %6,1 handitu ziren aurreko urteko epe beraren aldean. Tasa hori aurreko hiruhilekoena baino txikiagoa da. Halere, salmenten balioa 6.528 milioi eurora iritsi zen, hiruhileko batean inoiz jaso den altuena baita. Are gehiago, dagoeneko ezagutu den uztailako datuak %24,3ko aldakuntza utzi du. Horrek iradokitzen du atzerriarekin egiten den salerosketetan erritmo biziari eusten zaiola, muga zergen kontuak zalantzak piztu dituen arren.

Produktu taldeka, energiaren osagaiak bigarren hiruhilekoan erakutsi zuen geldotasuna azpimarratu behar da, urte arteko aldakuntza tasa %0,4 bakarrik izan zelako, hainbat epealditan oso gehikuntza garrantzitsuak jaso eta gero. Gorabehera handi horiek ohikoak dira sektorean, enpresa handi gutxi batzuen erabakipean egoten delako. Bilakaera balioan azertu beharrean saldutako tonatan aztertzen bada, ondorioztatzen da erregai mineralen salmenta %19,1 gutxitu zela. Horrek esan nahi du erregai horien salneurriak oso gorakada handia izan zuela epealdi horretan. Izan ere, Brent motako petrolioaren salneurria 2017ko bigarren hiruhilekoan 45 eurotan zegoen, baina urtebete bat beranduago 65 eurotara iritsi zen.

Los datos coyunturales ligados a actividades de inversión confirman el empuje creciente de ese agregado. En ese sentido, es muy significativo el incremento de las importaciones de bienes de equipo que se ha producido en la primera mitad del año, pero en especial en el segundo trimestre, periodo en el que aumentaron un 10,6% interanual, muy por encima de los valores anteriores. De igual manera, la producción de ese tipo de bienes, que tan solo abastece en parte a las empresas locales, creció un importante 6,6%. Por último, la matriculación de vehículos de carga (camiones, furgonetas y tractores) conoció un incremento elevado. Las variables que se asocian a la inversión en construcción, a pesar de su fuerte volatilidad, sugieren que el sector mantendrá durante un tiempo su actual intensidad. Así, los visados para la construcción de viviendas nuevas acumulan un incremento cercano al 30,0% en los siete primeros meses del año, mientras que la licitación crece un 11,9%. Con todo, ambas variables parten de cifras muy modestas y alejadas de los niveles previos a la crisis.

Como se ha señalado, la suave desaceleración de la economía vasca se produjo por un cambio de signo del saldo exterior, que pasó de aportar casi una décima en el primer trimestre a restar cerca de dos en el segundo. Este cambio sucede en un periodo de menor actividad tanto de las exportaciones como de las importaciones. Las primeras crecieron un 2,2% en términos reales mientras que las segundas llegaron al 2,4%. En términos nominales, las tasas de variación respectivas pasan a ser del 4,3% y del 5,4%, que indican que la atonía de los precios de estas variables ha dado paso a aumentos modestos.

La suavización de los intercambios comerciales queda patente cuando se analizan las ventas al extranjero (sin el resto del Estado) de bienes (sin servicios). En ese caso, las exportaciones aumentaron un 6,1% interanual, una tasa más modesta que las obtenidas en los trimestres anteriores. A pesar de ello, se totalizó una cifra de ventas de 6.528 millones de euros, que es la máxima que se haya registrado en un trimestre. Además, el dato de julio, ya conocido, dejó una variación del 24,3%, que sugiere que se mantiene un ritmo de actividad importante de cara al extranjero, a pesar de las dudas surgidas en torno a la cuestión arancelaria.

Por grupos de productos, destaca la atonía que muestra el componente energético en el segundo trimestre, con una variación interanual de tan solo el 0,4%, tras varios periodos acumulando incrementos muy importantes. Estas oscilaciones son habituales en el sector, que depende de las decisiones de un reducido número de grandes empresas. Si en lugar de analizar la evolución en valor se atiende a las toneladas vendidas, el resultado es un descenso del 19,1% en las ventas de combustibles minerales. Esto significa que el precio de esos combustibles tuvo un alza muy elevada en el periodo, como indica el precio del petróleo tipo Brent, que pasó de los 45 euros el barril en ese trimestre de 2017 a los 65 euros de 2018.

Energiaz bestelako ondasunen esportazioak bilakaera positiboa erakutsi zuen, %6,8ko urte arteko tasa batekin, baina aurreko emaitzak baino zertxobait txikiagoa. Garraio materialaren salmentak, esportazioen egituran pisu gehien duen atala baita, modu garrantzitsuan apaldu zuen bere aldakuntza tasa, aurreko hiru hiruhilekoetan %10etik gorako balioetatik bigarren hiruhilekoan jasotako %3,0ra. EAeko industriaren beste talde esanguratsuetako batek, makineriak, konpentsatu zuen, neurri batean, moteltze hori. Makinen eta tresnen esportazioak bere tasa hobetu zuen %6,2ra arte. EAeko esportazioen hirugarren osagai nagusiak, hots, metal arruntak eta beren manufaktura, gai izan zen aurreko gehikuntzari eusteko eta %11,1eko tasa eskuratu zuen. Gainontzeko atalek, askoz pisu gutxiago baitute, oso tasa esanguratsuak izan zituzten. Esate baterako, nekazaritzako produktuen salmenta %12,4 handitu zen, produktu kimikoena, berriz, %19,3 eta paperarena %13,9.

Esportazioen banaketa geografikoak jarraipena eman zion aurreko hiruhilekoetako ereduari eta gero eta protagonismo handiagoa eman dio herrialde garatuetako merkatuei, oraindik bizitasun handia eskaintzen baitute bilakaeran. Zehazkiago adierazita, atzerrian saldutako ondasun guztien %82 ELGEko herrialde batera joan zen, munduko gainontzeko tokietara %18 bideratu zen bitartean. Bi kasuetan, salmenten gehikuntza moteldu da, aurreko hiruhilekoetan egonkortasuna hautematen zen bitartean. Izan ere, herrialde garatuetan saldutakoa %7,1 hazi zen, aurreko hiruhilekoaren %12,0aren aldean. Garapen bidean dauden herrialdeetara, berriz, %1,8 gehiago bakarrik bidali zen, lehen hiruhilekoaren %5,6aren ondoren.

La exportación de bienes no energéticos, con un avance interanual del 6,8%, consiguió una evolución favorable, aunque algo inferior a los resultados anteriores. La venta de material de transporte, que es el apartado de mayor peso en la estructura exportadora, moderó de forma importante su tasa de variación, desde valores superiores al 10% en los tres trimestres anteriores hasta el 3,0% del segundo trimestre. Esta pérdida de tono fue compensada parcialmente por otro de los grupos más representativos de la industria vasca: la maquinaria. La exportación de máquinas y aparatos mejoró su tasa hasta el 6,2%. El tercer gran componente de la exportación vasca, los metales comunes y sus manufacturas, fue capaz de mantener su incremento anterior, con una tasa del 11,1%. El resto de apartados, que tienen un peso sensiblemente inferior, registró tasas muy significativas. Por ejemplo, la venta de productos agrícolas subió un 12,4%, la de productos químicos un 19,3% y la de papel un 13,9.

La distribución geográfica de las exportaciones dio continuidad al modelo de los trimestres anteriores, con un protagonismo creciente de los mercados de países desarrollados, que todavía ofrecen un dinamismo considerable en su evolución. Más en detalle, el 82,0% de todas las ventas de bienes al extranjero tuvo como destino algún país de la OCDE, frente al 18% que fue al resto del mundo. En ambos casos, se aprecia una reducción en el incremento de las ventas, frente a la estabilidad de los trimestres previos. Así, las ventas a países desarrollados aumentaron un 7,1%, frente al 12,0% anterior, y las destinadas a países en vías de desarrollo tan solo crecieron un 1,8%, tras el 5,6% del primer trimestre.

Esportazioen helburua	Destino de las exportaciones							TOTAL
	Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro		Tasas de variación interanual y miles de euros					
	2016	2017	2017		2018			
			III	IV	I	II	II	
<b>GUZTIRA</b>	<b>-1,6</b>	<b>10,5</b>	<b>12,7</b>	<b>11,1</b>	<b>10,9</b>	<b>6,1</b>	<b>6.527.910</b>	
ELGE	1,0	10,6	13,4	12,3	12,0	7,1	5.354.427	OCDE
Europar Batasuna	0,7	9,4	11,8	11,9	8,5	7,8	4.246.123	Unión Europea
Frantzia	4,4	12,4	14,0	16,9	12,4	6,0	1.018.814	Francia
Alemania	-1,4	3,1	4,8	7,7	5,2	7,0	1.028.782	Alemania
Erresuma Batua	-9,4	16,6	24,1	9,9	16,0	1,8	405.724	Reino Unido
Italia	-9,0	2,1	8,3	7,3	12,3	21,7	325.706	Italia
AEB	-10,5	18,5	49,3	16,9	47,1	17,7	561.070	Estados Unidos
ELGETik kanpokoak	-11,8	9,9	9,7	6,2	5,6	1,8	1.173.483	No OCDE

Iturria: Eustat.

Fuente: Eustat.

ELGE osatzen duten herrialdeen artean, merkatu estatubatuarrak protagonismoa irabazten jarraitu du, EAEko enpresei erositakoa oso nabarmen handitu zuelako berriro (%17,7). Herrialde horretara bidaltzen den atal nagusia erregai mineralak dira, esportatutako guztiaren %35 biltzen dutelako eta balioa %14,1 handitu dutelako. Horrekin batera, makineria mota guztiak ere pisua irabazten ari dira eta jadanik herrialde horretan saldutakoaren laurdena bereganatu dute. Makina eta tresna elektrikoek esportazioak bikoiztu zituzten (%105,7), baina makineria mekanikoa barnean hartzen duen atala egonkor mantendu zen. AEBetan saldutakoaren laugarren zutabeak, galdaketako manufakturak, %43,0ko gehikuntza tasa eskuratu zuen eta sei hiruileko kateatu ditu emaitza bikainak jasotzen. Europako altzairuari eginiko mehatxua desagertu izanak lagundu du produktu hori herrialdean saltzen jarraitzen.

EAEk atzerrira esportatzen duen guztiaren bi herenak Europar Batasunera bideratzen dira. Beraz, eremu hori merkatu behinena da EAEko eragileentzat. Lurralde horrek %7,8 gehiago erosi zuen EAEn, hots, batez bestekoa baino zertxobait gehiago, baina 2017ko hazkundera (%9,4) iritsi gabe. Eremu horretan saldutakoaren egiturari pisu handiena daukan atala ibilgailu automobilena da, guztizkoaren %30,3 biltzen baitu eta apal hazi zen (%4,6). Hala eta guztiz ere, makineriak %15,0aren inguruan hobetu zituen bere emaitzak. Burdinaren eta altzairuaren galdaketak ere emaitza garrantzitsua (%31,3) eskuratu zuen. Txanponaren ifrentzua erregai mineralak izan ziren, beren prezioa garestitu zen arren, salmenten balioa, urte arteko tasan, %13,3 gutxitu zelako.

Frantziak eta Alemaniak jasotzen dute Europara bidaltzen den guztiaren ia erdia eta partaidetza kuotak eta bidalitako kantitateak antzekoak dira bi herrialdeetan. Haietako bakoitzak 1.000 milioi euro baino gehiago balio zuten EAEko produktuak erosi zituen. Alemaniaren kasuan, bidaltzen den produktu nagusia ibilgailu automobilak dira, beraren eskarien erdia osatzen duelako. Bigarren hiruilekoz jarraian, atal horren gehikuntza oso txikia (%1,2) izan zen, baina erremintak eta tresnak atalaren portaera bikainak (%152,1) konpentsatu zuen, laugarren epealdia kateatu baitu aldakuntza tasa bikainak jasoz. Makineria mota guztiek %7,0aren inguruko aldakuntza tasak eskuratu zituzten eta herrialdera esportatutako guztiaren balioa %6,0 handitu zen, hots, lehen hiruilekoaren erdia.

Frantziara esportatzen dena ez dago horrenbeste ibilgailu automobilaren menpean, nahiz eta hura den pisu gehien daukana salmenten egiturari (%20aren ingurua). Talde horrek %2,7 gutxitu zuen bidalitakoaren balioa. Erregai mineralak, herrialde horretara gehien esportatzen den beste produktu bat baita, %24,7 jaitsi ziren. Datu txar horiek konpentsatuta geratu ziren burdinaren eta altzairuaren galdaketak (%45,0) eta makina eta tresna mekanikoek (%28,1) izan zuten bultzadarekin. Aurreko guztiaren ondorioz, esportazioen guztizkoa %7,0 hazi zen.

Dentro de los países de la OCDE, sigue cobrando protagonismo el mercado estadounidense, que volvió a aumentar sensiblemente sus compras a empresas vascas (17,7%). La partida principal que se destina a ese país son los combustibles minerales, que suponen el 35% del total exportado y cuyo valor aumentó un 14,1%. Junto a esta, están ganando peso los diferentes tipos de maquinaria, que absorben ya una cuarta parte del total vendido en ese país. Las máquinas y aparatos eléctricos duplicaron las exportaciones (105,7%), pero la rúbrica que incluye la maquinaria mecánica se mantuvo estable. El cuarto pilar de las ventas a Estados Unidos, las manufacturas de fundición, registró un incremento del 43,0% y encadena seis trimestres con resultados excelentes. La retirada de la amenaza al acero europeo ha contribuido a que se siga vendiendo ese producto en el país.

Dos tercios de todas las exportaciones vascas al extranjero tienen como destino la Unión Europea, por lo que resulta ser el principal mercado de los agentes vascos. Este destino aumentó sus compras en Euskadi un 7,8%, un poco por encima de la media pero sin llegar a la intensidad conseguida en 2017 (9,4%). El apartado con mayor peso en la estructura de ventas a esa área son los vehículos automóviles, que copan el 30,3% del total y crecieron un modesto 4,6%. Sin embargo, la maquinaria mejoró sus resultados del orden del 15,0%. También la fundición de hierro y acero obtuvo un registro importante (31,3%). La cruz de la moneda fueron los combustibles minerales, que, a pesar de su encarecimiento, redujeron el valor de las ventas un 13,3% interanual.

Francia y Alemania acaparan casi la mitad de las ventas vascas a Europa, con cuotas de participación y cantidades enviadas similares para ambos países. Cada uno de ellos realizó compras de productos vascos superiores a los 1.000 millones de euros. En el caso de Alemania, el producto principal que se envía son los vehículos automóviles, que componen la mitad de todos sus pedidos. Por segundo trimestre consecutivo, el incremento de esa partida fue muy modesto (1,2%), pero fue compensado con el excelente comportamiento de las herramientas y útiles (152,1%), que encadena su cuarto periodo con variaciones extraordinarias. Los distintos tipos de maquinaria registraron tasas de variación del orden del 7,0% y el total de las exportaciones al país creció un 6,0%, la mitad que en el primer trimestre.

Las exportaciones a Francia no dependen tanto de los vehículos automóviles, si bien también es el apartado de mayor peso en la estructura de ventas (cerca del 20%). Este grupo redujo un 2,7% el valor enviado, mientras que los combustibles minerales, otro de los productos más exportados al país, disminuyeron un 24,7%. Esos malos datos fueron compensados con el empuje de la fundición de hierro y acero (45,0%) y de las máquinas y aparatos mecánicos (28,1%). Como resultado de todo ello, el total de las exportaciones aumentó un 7,0%.

Erresuma Batuarekin dauden harremanetan oso garrantzitsua da automobilgintza eta ibilgailu automobilen atalak guztizkoaren %35,3 bereganatzen du. Pisua daukaten beste adar batzuk burdinaren eta altzairuaren galdaketa (guztizkoaren %15,2) eta makina mekanikoak (%14,5) dira. Hiru talde horiek aldakuntza tasa esanguratsuak eskuratu zituzten bigarren hiruhilekoan (%8,9, %60,1 eta %11,5, hurrenez hurren). Hala eta guztiz ere, helburu horretan saldutakoaren balioa %1,8 bakarrik igo zen, pisua daukaten beste atal batzuek, hala nola erregai mineralenak, esportazioak nabarmen gutxitu zituztelako.

Italiaren kasua Erresuma Batuarenaren antzekoa da, hiru produktu talde horiek esportazioak erritmo onean areagotu zituztelako. Halere, herrialde horretara bidalitakoa ez zuten kaltetu beste talde batzuen emaitza txarrekin eta guztira %21,7ko aldakuntza tasa lortu zen, aurreko balioen oso gainetik dagoena. Herrialde horren ekonomia erakusten ari den ahultasuna ez da, oraingoz, oztopoa izan EAeko enpresek bere produktuak merkatu horretan saltzeko.

Beste hiruhileko batez, EAeko esportazioak gutxiago hazi ziren ELGETik kanpoko herrialdeetan erakunde horretako ekonomietan baino. Hain zuzen ere, bigarren hiruhilekoan, urte arteko tasa %1,8an geratu zen, azken sei epealdietako txikiena. Merkatu horretan gehien saltzen den produktu mota makineria da eta esportatutako balioa %10,0 baino zertxobait gehiago jaitsi zen. Halere, beherakada hori konpentsatuta geratu zen ibilgailu automobilen bilakaera onarekin (%44,6), esportazioen egituran pisua irabazi baitute, eta erregai mineralen (%182,3) hazkundearekin.

Eremu horretako helburu nagusietako bat Txina da eta EAETik herrialde horretara bidalitako esportazioek oso portaera negatiboa izan zuten, %21,3 murriztu zirelako epealdi horretan. Hala makinek nola galdaketako manufakturek, bi atal garrantzitsuenak baitira, nabarmen gutxitu zituzten zenbakiak merkatu horretan. Aitzitik, Brasilen saldutakoa modu esanguratsuan (%33,5) areagotu zen, produktu kimikoen eta erregai mineralen eskaera ezohikoei esker, herrialde horretan erosi ohi diren produktuek (makinak eta aeronautikako ondasunak) beren balioa asko murriztu zuten bitartean. EAerako merkatu garrantzitsu bihurtzen ari den garatzeko bidean dagoen herrialde bat Iran da, 2017an saldutakoaren aldean aurtengo emaitza halako hiru delako. Hala eta guztiz ere, AEBek herrialde horri ezarri nahi dizkieten neurriak oztopoa izan daitezke merkataritza harreman hori finkatzeko.

Inportazioek esportazioek baino portaera dinamikoagoa izan zuten aurtengo bigarren hiruhilekoan, %8,7ko igoera batekin.

Las relaciones comerciales con el Reino Unido tienen un componente muy importante de automoción, con el apartado de vehículos automóviles ocupando el 35,3% del total. Otros productos con peso son la fundición de hierro y acero (15,2% del total), y las máquinas mecánicas (14,5%). Los tres grupos registraron en el segundo trimestre tasas de variación significativas (8,9%, 60,1% y 11,5%, respectivamente). A pesar de ello, el valor total de las ventas a ese destino tan solo aumentó un 1,8%, debido a que otras partidas con menos peso, como los combustibles minerales, redujeron de forma importante sus exportaciones.

El caso de Italia es similar al del Reino Unidos, con los mismos tres grupos de productos principales aumentando sus exportaciones a fuerte ritmo. Sin embargo, las ventas a ese país no se vieron perjudicadas por los malos resultados de otras partidas y en total obtuvieron una tasa de variación del 21,7%, muy por encima de los valores anteriores. La debilidad que muestra la economía del país no está siendo un impedimento para que las empresas vascas coloquen allí sus productos.

Un trimestre más, las exportaciones vascas fuera de la OCDE crecieron menos que las destinadas a ese grupo de países. En concreto, en el segundo trimestre la tasa interanual se quedó en el 1,8%, la más baja de los últimos seis periodos. El tipo de productos que más se vende en ese mercado es maquinaria, que redujo su valor exportado algo más de un 10,0%. Sin embargo, ese descenso se vio compensado por la buena evolución de los vehículos automóviles (44,6%), que están ganando peso en la estructura de exportaciones, y de los combustibles minerales (182,3%).

China es uno de los destinos principales dentro de esa área y las exportaciones vascas al país tuvieron un comportamiento muy negativo, al descender un 21,3% en el periodo. Tanto las máquinas como las manufacturas de fundición, los dos apartados principales, redujeron de manera importante sus cifras en ese mercado. En sentido contrario, las ventas a Brasil aumentaron de forma significativa (33,5%), gracias a pedidos extraordinarios de productos químicos y de combustibles minerales, mientras que los productos que habitualmente se destinan a ese país (máquinas y productos de aeronáutica) redujeron notablemente su valor. Un país emergente que se está convirtiendo en un mercado importante para Euskadi es Irán, donde las ventas se han triplicado respecto a 2017. Sin embargo, las medidas que Estados Unidos quiere imponer al país podrían obstaculizar la consolidación de esta relación comercial.

Las importaciones tuvieron un comportamiento más dinámico que las exportaciones en el segundo trimestre, con un avance del 8,7%.

## Inportazioen jatorria

## Origen de las importaciones

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

Tasas de variación interanual y miles de euros

	2016	2017	2017		2018			TOTAL
			III	IV	I	II	II	
<b>GUZTIRA</b>	<b>-8,0</b>	<b>20,5</b>	<b>22,5</b>	<b>13,9</b>	<b>2,9</b>	<b>8,7</b>	<b>5.031.699</b>	
ELGE	-7,7	17,8	23,0	8,9	1,5	4,6	3.254.386	OCDE
Europar Batasuna	-8,1	13,4	14,2	5,6	-6,0	2,7	2.612.853	Unión Europea
Frantzia	9,5	6,8	11,7	5,4	4,8	11,5	745.051	Francia
Alemania	-8,9	12,0	14,2	18,9	11,9	14,5	491.963	Alemania
Erresuma Batua	-51,7	62,8	76,5	-26,5	-57,0	-42,2	155.112	Reino Unido
Italia	3,5	7,7	7,1	9,9	11,9	9,0	264.615	Italia
AEB	-3,9	18,8	39,2	34,3	0,8	-30,4	81.155	Estados Unidos
ELGETik kanpokoak	-8,5	26,9	21,6	26,5	6,4	17,0	1.777.313	No OCDE

Iturria: Eustat.

Fuente: Eustat.

Hala energiako produktuek (%10,5) nola gainontzekoek (%8,2) gehikuntza tasa esanguratsua eskuratu zituzten hiruhileko horretan. Azken horien artean, metal arruntak eta beren manufakturek (%15,2) eta makinak eta aparailuek (%13,7) aldakuntza garrantzitsuak izan zituzten. Pisu gutxiago duten beste atal batzuetan ere emaitza onak lortu ziren, hala nola nekazaritzako produktuetan (%20,7) eta garraio materialean (%9,0), baina produktu kimikoen eta gainontzeko manufakturek konpentsatu zuten.

Inportazioen gorakada handiagoa da garapen bidean dauden herrialdeetan (%17,0) garatuetan (%4,6) baino, erregai mineralak proportzio handiago batean herrialde haietatik ekarri direlako. Hain zuzen ere, bigarren hiruhilekoan produktu horien erosketa Europako herrialdeetatik, hau da, Norvegiatik eta Erresuma Batutik, beste ekonomia batzuetara aldatu da. Zehazkiago adierazita, energiako ondasunen hornitzaile nagusiak berriro izan dira Libia eta Mexiko, erosketa guztien herena bereganatzen baitute. Ondoren, Brasil, Nigeria eta Ekuatore Ginea daude, azken herrialde hori lehen aldiz agertzen da hornitzaile nagusien artean.

Erregai mineralen jatorria aldatu izanak eragina dauka Europar Batasuneko emaitzan, EAEn eginiko salmentak %2,7 bakarrik handitu zuelako. Hala eta guztiz ere, emaitza apal hori Erresuma Batutik inportatutako energiako produktuen jaitsieraren ondorioa da, zeren eta Europako gainontzeko ekonomia nagusiek oso gehikuntza tasa esanguratsua eskuratu zituztelako. Zehatz-mehatz, EAeko eragileek Alemanian eginiko erosketak %11,5 handitu ziren. Herrialde horretatik batez ere makineria mota ezberdinak inportatu ziren, gehikuntza nabarmenak izan zituztenak, eta ibilgailu automobilak, hazkunde neurritsuagoa (%3,3) izan zutenak.

Tanto los productos energéticos (10,5%) como el resto (8,2%) registraron incrementos significativos en el periodo. Dentro de estos últimos, los metales comunes y sus manufacturas (15,2%) y las máquinas y aparatos (13,7%) obtuvieron variaciones importantes. También fueron buenos los resultados en otros apartados de menor peso, como son los productos agrícolas (20,7%) y el material de transporte (9,0%), que fueron contrarrestados por los productos químicos y las otras manufacturas.

El avance de las importaciones es mayor en los países en vías de desarrollo (17,0%) que en los desarrollados (4,6%), debido a que los combustibles minerales se han traído en mayor proporción de los primeros. Efectivamente, en el segundo trimestre las compras de esos productos se han trasladado de países europeos, como Noruega y el Reino Unido, a otras economías. Más en detalle, los principales suministradores de bienes energéticos vuelven a ser Libia y México, que acaparan un tercio del total de las compras. A continuación, se encuentran Brasil, Nigeria y Guinea Ecuatorial, este último por primera vez entre los grandes proveedores.

El cambio de origen de los combustibles minerales afecta al resultado del conjunto de la Unión Europea, que tan solo aumenta sus ventas en Euskadi un 2,7%. Sin embargo, ese modesto resultado es consecuencia del descenso de productos energéticos importados del Reino Unido, puesto que las demás economías europeas principales anotaron incrementos muy significativos. Más en detalle, las compras de los agentes vascos en Alemania aumentaron un 11,5%. De aquel país se importan principalmente distintos tipos de maquinaria, que registraron incrementos notables, y vehículos automóviles, con un avance más modesto (3,3%).




Beste aldetik, Frantziatik inportatutakoaren balioa %14,5 igo zen, aurreko hiruhilekoetako balioen antzera. Kasu horretan, beraren bi atal nagusiek, hots, burdinaren eta altzairuaren galdaketak (%12,3) eta makinak eta aparailu mekanikoek (%56,4) gehikuntza garrantzitsuak izan zituzten. Azkenik, Italiak %9,0 areagotu zituen salmentak EAEn. Herrialde horrek Frantziarako aipatu berri diren produktu mota berberak bidaltzen dizkie EAEko eragileei eta bi kasuetan oso gehikuntza tasa handiak lortu ditu.

Esportazioen eta inportazioen datuetatik eratortzen den merkataritza saldoak 1.496 milioi eurora iritsi zen, EAEn aldekoa, aurreko hiruhilekoetan eskuratutako balioetatik hurbil dagoela. Hala ere, energiaren bestelako saldoa 2.167 milioi eurokoa izan zen, inoiz jaso den kopururik altuenetako bat baita. Aitzitik, energiaren saldoa negatiboa izan zen berriro eta bigarren hiruhilekoan 671 milioi eurokoa. Petrolioaren garestitu zen arren saldo hori eta aurrekoak ez dira oso ezberdinak.

Por su parte, las importaciones de Francia aumentaron un 14,5%, en línea con los valores de los trimestres anteriores. En este caso, sus dos apartados principales, fundición de hierro y acero (12,3%) y máquinas y aparatos mecánicos (56,4%) tuvieron incrementos importantes. Por último, Italia aumentó sus ventas en Euskadi un 9,0%. Ese país se caracteriza por enviar a los agentes vascos el mismo tipo de productos que los mencionados para Francia y en ambos casos los incrementos fueron muy significativos.

El saldo comercial que se deriva del total de productos exportados e importados alcanzó la cifra de 1.496 millones de euros, favorable a Euskadi, un valor similar al de los periodos anteriores. Sin embargo, el saldo no energético fue de 2.167 millones de euros, que es uno de los más elevados que se haya registrado. Por el contrario, el saldo energético volvió a ser negativo y totalizó los 671 millones de euros. A pesar del encarecimiento del petróleo, ese saldo no es significativamente distinto a los anteriores.





**2.4. Prezioak, kostuak eta soldatak**  
*Precios, costes y salarios*



EAEko ekonomia aztertzen duten adierazle guztiak goranzko joera txiki bat erakusten ari dira, baina oraindik ezin da esan tentsio inflaziogilerik hauteman denik. Izan ere, BPGaren deflatoreak hamarren bat igo zuen bere erregistroa bigarren hiruhilekoan eta %1,0an kokatu zuen. Deflatorearen osagai nagusiek igoera esanguratsua izan zuten. Esate baterako, kontsumo pribatuaren deflatoreak bere emaitza bikoiztu zuen lehen hiruhilekoaren %0,9tik bigarreneko %1,8ra. Era berean, kapital eraketa gordinaren deflatorea %1,6an kokatu zen. Hala eta guztiz ere, igoera horiek inportazioen deflatorearen bilakaerak konpentsatu zituen, petrolioaren garestitzearen ondorioz nabarmen igo zelako.

Kontsumoko prezioei dagokienez, KPIa %2,0an kokatu zen maiatzean eta harez geroztik adierazlea ez da berriro egon bi puntuen azpitik, udako hilekoetan %2,2 eta %2,3aren inguruan ibili delarik. Goranzko presio handiena egiten duten elementuak argindarra, elikagaiak eta erregaiak dira. Argindarraren kasuan, handizkako batez besteko prezioa urteko maximoa markatzera iritsi zen, zeren eta industriak CO2 isuri ahal izateko erosten eta saltzen dituen eskubideak garestitu direlako. Beste aldetik, elikagaien artean, fruta freskoek bizi izan duten garestitzea azpimarratu behar da. Azkenik, erregaiak hazkunde tasak hilekoz hileko gutxitu zituzten arren, oraindik aldakuntza biziak jaso dituzte, petrolio gordinaren salneurriak izan duen bilakaerak kaltetuta.

Los distintos indicadores que analizan los precios de la economía vasca están mostrando una ligera tendencia al alza, aunque todavía no puede hablarse de tensiones inflacionistas. De este modo, el deflactor del PIB incrementó en una décima su registro del segundo trimestre y lo situó en el 1,0%. Los principales componentes del deflactor tuvieron un aumento significativo. Así, el deflactor del consumo privado dobló su registro desde el 0,9% del primer trimestre hasta el 1,8% del segundo. De igual manera, el deflactor de la formación bruta de capital alcanzó el 1,6%. Con todo, estos aumentos se vieron compensados por la evolución al alza del deflactor de las importaciones que subió notablemente por el repunte que registró el precio del petróleo.

En lo que se refiere a los precios de consumo, el IPC alcanzó el 2% en el mes de mayo y desde entonces ese indicador no ha vuelto a situarse por debajo de los dos puntos porcentuales, manteniéndose durante los meses de verano en registros en torno al 2,2%-2,3%. Los elementos que más presionan al alza son la electricidad, la alimentación y los carburantes. En el caso de la electricidad, su precio medio mayorista llegó a marcar el máximo anual, puesto que los derechos que compra y vende la industria para poder emitir CO2 se han incrementado. Por su parte, entre los alimentos destaca el encarecimiento vivido por rúbricas como las frutas frescas. Y finalmente, los carburantes y combustibles, si bien fueron moderando sus registros, aún registraron tasas elevadas, afectados por la evolución del precio del crudo.

#### Kontsumo prezioen indizearen banaketa Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

#### Desglose del índice de precios al consumo Tasas de variación interanual y aportaciones

	2016	2017	2018				Inflación total (100%)
			I	II	Abuztua Agosto	Ekarpena Aport.	
<b>Inflazio osoa (%100)</b>	<b>0,0</b>	<b>2,0</b>	<b>0,9</b>	<b>1,8</b>	<b>2,2</b>	<b>2,2</b>	<b>Inflación total (100%)</b>
<b>Azpiko inflazioa (%81,8)</b>	<b>0,9</b>	<b>1,1</b>	<b>0,9</b>	<b>1,0</b>	<b>0,9</b>	<b>0,7</b>	<b>Inflación suby. (81,8%)</b>
-Elikagai landuak (%14,3)	0,9	0,0	1,0	1,3	0,8	0,1	-Alimentos elabor. (14,3%)
-Industria ond. (%24,5)	0,8	0,3	-0,3	-0,1	0,0	0,0	-Bienes industriales (24,5%)
-Zerbitzuak (%43,1)	1,1	1,7	1,5	1,6	1,4	0,6	-Servicios (43,1%)
<b>Hondar inflaz. (%18,2)</b>	<b>-4,2</b>	<b>6,5</b>	<b>0,8</b>	<b>5,2</b>	<b>8,1</b>	<b>1,5</b>	<b>Inflac. residual (18,2%)</b>
-Landu gab. elik. (%7,8)	2,6	3,7	1,7	3,9	4,3	0,3	-Alimentos no elab. (7,8%)
-Energia (%10,4)	-8,2	8,2	0,2	6,3	11,0	1,2	-Energía (10,4%)

Iturria:INE.

Fuente: INE.

Hain zuzen ere, Brent motako petrolioak nahiko bilakaera egonkorra erakutsi zuen azken hilekoetan, upela 70 eta 75 dolarren arteko balioan saltzen zela, baina irailean ia 80 dolarretara iritsi zen. Igoera horren atzean dauden arrazoiak dira: Iranekin zerikusia duten tentsio politikoak, Venezuelan, Nigerian eta Libian gaur egun bizi diren iskanbila politikoak, eta AEBek dauzkaten petrolio izakinek berriki pairatu duten beherakada garrantzitsua.

Euroguneko inflazioak ere EA Erenak bezalako balioak jaso zituen, %2aren inguruko erregistroak jasota. Han ere argindarraren eta elikagaien prezioen igoerak gorarazi zuen indize orokorra, zeren eta azpiko inflazioaren adierazleak, oro har, maila apaletan geratu baitziren. Epe laburrean, energiaren salneurriak oraindik igoko direla aurreikusten da, petrolioaren prezioa are handiagoa delako. Hala ere, epe luzeago batean, inflazioaren aurreikuspenetan dagoen ziurgabetasuna gutxituko da.

Beste aldetik, azken hilekoetan azpiko inflazioak oso tasa apaletan jarraitu zuen, %1,0aren ingurukoa, nahiz eta urte hasieran jaso zituen minimoen (%0,6) gainetik kokatu zen. Adierazle horren barnean, pisu handiena daukan taldeak, hots, zerbitzuek, beheranzko joera eskaini zuen. Landutako elikagaiak ere leuntzeko norabidea erakutsi zuten. Aitzitik, energiako produkturik gabeko industria ondasunek, oraindik jasotzen dituzten hazkunde tasak oso esanguratsuak ez diren arren, aurreko epealdietako aldakuntza tasa negatiboak atzean utzi zituzten, argindarraren prezioen bizkortzearen ondorioz.

Kontsumoko prezioak energiak eta landu gabeko janariak gorarazi zituztenez, osagai gorabeheratsuenak biltzen dituen adierazleak, hots, hondar inflazioak, urte hasieran hartu zuen goranzko joerari jarraipena eman zion. Zehatz-mehatz azalduta, landu gabeko elikagaien tasa %4,3an kokatu zen abuztuan, ezagutu den azken hilekoa baita, fruta freskoen salneurrien gehikuntza nabarmenak oso negatiboki kaltetuta. Aldi berean, energiaren garestitzea bi zenbakietara (%11,0) iritsi zen, lehenago ere aipatu den petrolio gordinaren prezioaren bilakaeragatik.

Argindarraren garestitzearen ondorioz, azken hilekoetan etxebizitza taldeak izan du eragin handiena KPI indizearen bilakaeran, nahiz eta garraioa den oraindik urte arteko aldakuntza tasa altuena (%5,1) jaso duena. Tasa horiek azken bi hilekoetan gutxiti ziren, automobilen prezioek behera egin zutelako, kontzesionarioek isurien araudi berria indarrean sartu baino lehen deskontuen kanpaina bati ekin ziotelako. Beste aldetik, inflazioaren bilakaera beherantz eramaten ari diren taldeen artean, aisialdia eta kultura taldea (%-1,1) nabarmendu behar da, turismo paketeak 2017an baino gutxiago garestitu zirelako.

En concreto, el precio de Brent a lo largo de los últimos meses se mantuvo relativamente estable, fluctuando entre los 70 y los 75 dólares por barril, hasta alcanzar prácticamente los 80 dólares durante el mes de septiembre. Dicha subida vino sustentada por las tensiones geopolíticas relacionadas con Irán, las turbulencias políticas que se registran actualmente en Venezuela, Nigeria y Libia, y por la importante caída registrada recientemente en los inventarios de petróleo de EE. UU.

La inflación de la zona del euro también registró valores similares a los de Euskadi, con registros que se situaron en torno al 2%, debido fundamentalmente a la subida de los precios de la energía y los alimentos, puesto que los indicadores de la inflación subyacente se mantuvieron, en general, contenidos. Se espera que a corto plazo continúe dicho avance de los precios de la energía, derivado de unos precios del petróleo más elevados. No obstante, a más largo plazo, la incertidumbre acerca de las perspectivas de inflación disminuirá.

Por su parte, durante los últimos meses la inflación subyacente continuó en valores muy moderados, en el entorno del 1,0%, si bien se situó por encima de los mínimos registrados a principios de año (0,6%). Dentro de este indicador, el grupo con mayor peso, los servicios, ofreció una tendencia a la baja. También los alimentos elaborados mostraron un perfil de suavización. Por el contrario, los bienes industriales sin productos energéticos, a pesar de registrar aún crecimientos muy poco significativos, abandonaron las tasas de variación negativas de periodos anteriores, a raíz de la aceleración de los precios de la electricidad.

Dado que los precios de consumo se aceleraron impulsados por la energía y los alimentos no elaborados, la inflación residual, que recoge precisamente a esos componentes más volátiles, prolongó la senda ascendente iniciada a primeros de año. En concreto, los alimentos no elaborados se situaron en el 4,3% en el mes de agosto, último periodo en el que se disponen de datos, afectados muy negativamente por los notables incrementos de los precios de las frutas frescas, mientras que la energía superó los dos dígitos (11,0%), por la ya mencionada evolución del precio del petróleo.

El citado aumento de los precios de la electricidad provocó que en los últimos meses fuera el grupo de vivienda el que mayor repercusión positiva tuviera en el IPC, si bien el grupo de transporte continuó registrando las tasas interanuales más elevadas (5,1%). Estas tasas se fueron reduciendo en los dos últimos meses, puesto que los precios de los automóviles cayeron, por la campaña de descuentos que realizaron los concesionarios ante la entrada en vigor de la nueva normativa de emisiones. Por su parte, entre los grupos con mayor influencia a la baja en la evolución de la inflación, hay que destacar al grupo de ocio y cultura (-1,1%), como consecuencia de que los paquetes turísticos se incrementaron menos que en 2017.

Kontsumoko prezioek bezala, industria ekoizpenaren salneurriek ere igoera bizkortu zuten, IPRIk neurtzen duenez. Hain zuzen ere, indize orokorrak %5,1eko tasa jaso zuen abuztuan, sei hilekoz jarraian gehikuntzak kateatuz. Bizkortze horren atzean, dagoeneko aipatu den argindarraren garestitzea dago. Horixe baieztatzen du energiaren osagaiak, beraren tasek %15 gaintitu zutelako. Halako tasarik ez zen iazko hasieratik jasotzen. Hala ere, energia albo batera uzten bada, energia gabeko IPRIak gehikuntza tasa apalak aurkeztu zituela, 2017ko erdialdean hasi zuen moteltze progresiboko joera berreskuratuz.

Al igual que los precios de consumo, los precios de producción industrial, medidos por el IPRI, se fueron acelerando. En concreto, el índice general alcanzó una tasa del 5,1% en el mes de agosto, encadenando seis meses consecutivos de incrementos. Detrás de esta aceleración se encuentra el ya mencionado avance de los precios de la electricidad, como así lo certifica el componente de energía, cuyas tasas superaron el 15%, cifras que no se alcanzaban desde comienzos del año pasado. Sin embargo, si se excluye la energía, se puede comprobar que el IPRI no energético presentó tasas moderadas, retomando de este modo la tendencia de progresiva desaceleración que se inició a mediados de 2017.

## EAEko kontsumoko prezioen indizea

## IPC de Euskadi

## Urte arteko aldakuntza tasak

## Tasas de variación interanual

	2016	2017	2017		2018			Índice general
			III	IV	I	II	Abuztua Agosto	
<b>Indize orokorra</b>	<b>0,0</b>	<b>2,0</b>	<b>1,8</b>	<b>1,4</b>	<b>0,9</b>	<b>1,8</b>	<b>2,2</b>	
Jan eta alkohol.g/ edariak	1,6	1,2	0,7	2,0	1,2	2,2	2,0	Aliment. y bebidas no alc.
Edari alkohold., tabakoa	0,4	1,7	1,6	1,7	1,5	2,4	2,7	Bebidas alcohol.y tabaco
Jantziak eta oinetakoak	0,8	0,7	0,8	0,4	0,6	1,3	1,2	Vestido y calzado
Etxebizitza	-4,1	3,7	2,7	1,9	0,0	2,0	4,8	Vivienda
Etxeko hornidura	0,5	-0,3	-0,6	-0,8	-0,3	0,4	0,3	Muebles y artículos hogar
Medikuntza	1,0	1,1	1,1	0,4	0,2	0,1	0,2	Sanidad
Garraioa	-1,8	4,3	3,2	2,7	1,5	4,2	5,1	Transporte
Komunikazioak	2,6	1,3	1,0	0,5	1,8	2,6	2,7	Comunicaciones
Aisia eta kultura	-1,0	1,9	2,0	1,3	0,2	-0,1	-1,1	Ocio y cultura
Irakaskuntza	0,6	1,6	1,6	1,5	1,1	1,0	1,0	Enseñanza
Jatetxeak eta hotelak	1,0	1,8	2,4	1,9	1,8	1,7	1,6	Restaurantes y hoteles
Besteak	1,7	0,7	0,4	0,1	0,2	0,4	1,1	Otros bienes y servicios

Iturria:INE.

Fuente: INE.

Negoziatutako soldaten hazkunderari buruz LHK-k eskaini duen informazio berrienak adierazten du uztaila arte soldatak nabarmen igo zirela aurreko urteetako emaitzekin alderatzen direnean, lan merkatuaren baldintzekin bat eginda. Hain zuzen ere, indarrean dauden lan hitzarmenek %2,0ko igoera jaso dute eta aurtengo urtean zehar adostutakoetan hazkundera %2,3ra iritsi da, gaur eguneko inflazioaren zertxobait gaintetik. Azpimarratu behar da negoziazio kolektiboak aurtengo lehen seihilekoan izan duen garapena, zeren eta oraindik apala izan arren, azken hiru urteetan jasotako altuena baita. Izan ere, langileen %38k hitzarmena eguneratuta dauka, iaz baino ia bost puntu gehiago, %46,7k aurrekoa luzatuta dauka eta gainontzeko %15,3rentzat hitzarmenaren edukia bertan behera geratu da.

La información más reciente del CRL sobre el crecimiento de los salarios negociados hasta el mes de julio indica que, en consonancia con las condiciones del mercado de trabajo, estos repuntaron considerablemente en comparación con los años previos. En concreto, los convenios vigentes registran una subida del 2,0%, mientras que los acordados a lo largo del año llegaron al 2,3%, un poco por encima de la inflación actual. Hay que destacar el grado de avance de la negociación colectiva conocido durante el primer semestre del año, puesto que, aun siendo todavía moderado, es mayor que el alcanzado en los últimos tres años, con el 38% de los trabajadores con convenios actualizados, casi cinco puntos más que el año anterior, el 46,7% con vigencia prorrogada y el 15,3% con convenios decaídos.

Hitzarmenetan adostutako soldata igoerak Urte arteko aldakuntza tasak	Incremento salarial pactado en convenio					Tasas de variación interanual
	2014	2015	2016	2017	2018 (*)	
Indarrean dauden hitzarmenak	0,7	0,6	1,0	1,6	2,0	Convenio en vigor:
- Urtean zehar sinatutakoak	0,5	0,8	1,2	1,6	2,3	- Firmados durante el año
Negoiazio esparruaren arabera:						Por ámbito de negociación:
- Sektoreko hitzarmenak	0,8	0,6	1,0	1,5	2,1	- Convenios sectoriales
- Enpresako hitzarmenak	0,6	0,6	1,2	1,6	1,7	- Convenios de empresa

(\*) 2018ko uztailara arte erregistratutako hitzarmenak.  
Iturria: Lan Harremanen Kontseilua

(\*) Convenios registrados hasta julio de 2018.  
Fuente: Consejo de Relaciones Laborales.

Azkenik, INEk osatzen duen inkestaren datuen arabera, lan kostuak %1,6 hazi ziren bigarren hiruhilekoan, lehenengoan beste. Beraz, lan hitzarmenetan adostutako igoeraren azpitik geratu dira. Adierazi behar da, hazkunde horri esker dagoeneko lau hiruhilekotan jarraian jaso direla igoerak, batez ere zerbitzuetan gauzatu direnak, sektore horren kostuak %2,2 handitu zirelako. Hala eta guztiz ere, analisia lan egindako ordu bakoitzeko egiten bada, emaitza oso ezberdina da, zeren eta lan kostua orduko %2,5 murriztu baitzen, benetan egindako lan orduen kopurua 2018ko bigarren hiruhilekoan %4,3 igo zelako, iazko epealdi berean %7,4 murriztu zen bitartean.

Finalmente, según datos de la encuesta que elabora el INE, los costes laborales se mantuvieron en el 1,6% del trimestre anterior, quedando así por debajo de los salarios negociados por convenio. Cabe señalar que, con este aumento, son ya cuatro trimestres consecutivos en positivo, apoyándose básicamente en el sector servicios, que incrementó sus costes un 2,2%. Sin embargo, no se obtiene el mismo resultado si el análisis se realiza por hora trabajada, puesto que el coste laboral por hora se redujo en un 2,5%, a raíz de que las horas efectivas se incrementaron en un 4,3% en el segundo trimestre de 2018, cuando en el mismo periodo del año anterior se redujeron en un 7,4%.


Lan kostuak Urte arteko aldakuntza tasak	Costes laborales							Tasas de variación interanual
	2016	2017	2017			2018		
			II	III	IV	I	II	
Lan kostu guztiak langileko	-0,9	0,5	-1,3	1,1	1,2	1,6	1,6	Coste laboral total trabajador
- Soldata kostua guztira	-1,1	0,1	-1,7	1,1	0,8	1,6	1,1	- Coste salarial total
- Bestelako kostuak	-0,3	1,6	-0,1	1,1	2,4	1,7	3,2	- Otros costes
Lan kostu guztiak orduro	0,4	0,2	6,6	-1,8	0,7	5,0	-2,5	Coste laboral total por hora
- Soldata kostua guztira	0,2	-0,2	6,1	-1,7	0,3	4,9	-3,1	- Coste salarial total
- Bestelako kostuak	1,0	1,2	8,0	-2,0	2,0	5,1	-1,0	- Otros costes
Itundutako lan orduak	-0,6	-0,1	-0,4	0,1	0,1	0,5	0,3	Horas pactadas
Benetan egindako lan orduak	-1,0	0,0	-7,4	3,0	0,4	-3,2	4,3	Horas efectivas

Iturria: INE.

Fuente: INE.







2.5. Arlo publikoa  
*Sector público*



Eusko Jaurlaritzako aurrekontu egikaritzaren azken datuek, abuztu artekoak baitira, oso emaitza positiboak aurkeztu dituzte, hainbat hilekoz joera negatiboa erakutsi ondoren. Hain zuzen ere, epealdi horretan finantzatzeko ahalmena oso nabarmen handitu zen (%129,8), diru sarrera arruntek goranzko norabideari jarraipena eman ziotelako (%5,1), izaera bereko gastuak oso gutxi (%0,8) gehitu ziren bitartean. Izan ere, finantzaz bestelako baliabideen igoera, batez ere, zergen gehikuntza orokorrak azaltzen du. Aitzitik, finantzaz bestelako gastuen edo erabileren artean, berau osatzen duten atal guztiek oso hazkunde motela aurkeztu zuten, baita negatiboa ere, finantza gastuen kasuan gertatu den bezala, interes tasa txikiek mesedea egin dietelako.

Aldagai finantzarioa ere kontuan hartzen bada, finantzaziorako ahalmena aurrekontu superabit bihurtzen da, 666,2 milioi euroko tamaina duena, bereziki zorpetzearekin lotzen den kapituluak, hots, finantza pasiboen aldakuntza garbiak, izan duen beheeranzko bilakaeraren ondorioz (%-59,3).

Los últimos datos sobre ejecución presupuestaria del Gobierno Vasco, que llegan hasta el mes de agosto, presentaron registros muy positivos, tras unos meses en los que la tendencia había sido negativa. Concretamente, en dicho período la capacidad de financiación aumentó de forma notable (129,8%), gracias a que los ingresos corrientes continuaron al alza (5,1%), mientras que los gastos de igual naturaleza apenas se incrementaron (0,8%). Así, el aumento de los recursos no financieros se explicó principalmente por el incremento generalizado de los impuestos. Por el contrario, entre los gastos o los empleos no financieros, los diferentes capítulos que lo componen presentaron crecimientos muy moderados o incluso negativos, como es el caso de los gastos financieros, beneficiados por los bajos tipos de interés.

Si incorporamos la variable financiera, dicha capacidad de financiación se torna en un superávit presupuestario de 666,2 millones de euros, fundamentalmente por la evolución a la baja del capítulo que se asocia al endeudamiento, es decir, la variación neta de los pasivos financieros (-59,3%).

**Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu eragiketak**  
(2018ko urtarril-abuztua). Mila euro

**Operaciones presupuestarias Gobierno Vasco**  
(Enero-agosto 2018). Miles de euros

	2017	2018	Aldakuntza Variación	
1. SARRERA ARRUNTAK	6.181.267	6.496.048	5,1	1. INGRESOS CORRIENTES
2. GASTU ARRUNTAK	5.721.298	5.769.538	0,8	2. GASTOS CORRIENTES
Langileen gastuak	1.295.770	1.301.086	0,4	Gastos de personal
Funtzionamenduko gastuak	2.134.320	2.197.593	3,0	Gastos de funcionamiento
Finantza gastuak	122.685	110.752	-9,7	Gastos financieros
Transferentzia arruntak	2.168.523	2.160.107	-0,4	Transferencias corrientes
3. AURREZKI GORDINA (1-2)	459.969	726.510	57,9	3. AHORRO BRUTO (1-2)
4. KAPITALEKO SARRERAK	40.782	36.772	-9,8	4. INGRESOS DE CAPITAL
5. KAPITALEKO GASTUAK	304.952	313.396	2,8	5. GASTOS DE CAPITAL
Inbertsio errealak	78.055	70.680	-9,4	Inversiones reales
Kapitaleko transferentziak	226.897	242.716	7,0	Transferencias de capital
6. FINT. AHAL (+)/BEHAR (-) (3+4-5)	195.799	449.886	129,8	6. CAP. (+)/NEC.(-) FIN. (3+4-5)
7. FINANTZA AKTIBOEN ALD. GARBIA	-33.799	-18.596	45,0	7. VAR. NETA ACTIVOS FINANC.
8. FINANTZA PASIBOEN ALD. GARBIA	576.998	234.910	-59,3	8. VAR. NETA PASIVOS FINANC.
9. AURREKONTU SUP./DEF. (6+7+8)	738.998	666.200	-9,9	9. SUP./DÉF. PRESUP. (6+7+8)
10. AURREKONTU SUP./DEF. KUTXA TERMINOTAN	796.663	974.271	22,3	10. SUP./DÉF.PRES. TÉRMINOS DE CAJA

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Saila.

Fuente: Departamento de Hacienda y Economía.

EAEko itunpeko zergen bidez bildutako diru kopuruari dagokionez, 2018ko abuztua arte, diru sarrerak 9.552,2 milioi eurora iritsi ziren, 2017ko epealdi berean jaso ziren 9.100,1 milioi euroen aldean. Horrek esan nahi du %5eko gehikuntza lortu dela azken urtebetean, aurreko emaitza onei jarraipena emanez. Berrito ere, portaera on hori zuzeneko zergetan zein zeharkako zergetan mamitu da, hurrenez hurren beraien gehikuntza tasak %9,1 eta %8,4 izan zirelako.

Zuzeneko zergen artean, PFEZren gehikuntza azpimarratu behar da, aurtengo lehen zortzi hilekoetan iazko epealdi berean baino 255 milioi euro gehiago bildu duelako, %8,0ko aldakuntza tasa positiboa utziz. Diru sarrera horiek, batez ere, zergan pisu gehien duen kapituluari esker iritsi ziren, hots, lan etekinen gaineko atxikipenei esker, enpleguaren gorakadak mesedea egin zirelako. Hala ere, joerak nolabaiteko moteltzea iradokitzen du. Atxikipenen hobekuntza horri erantsi behar zaio kapitaleko errenta guztien bilakaera positiboa, hala kapital higigarriarena (%19,0) nola ondare irabaziena (%17,2). Lehenengoak azken hilekoetako goranzko joera baieztatu zuten, dibidenduen eta finantza aktiboetatik eratorritako errenten hobekuntzari esker. Ondare irabaziek, berriz, moteltze garrantzitsua aurkeztu zuten, errenta aldakorreko bigarren mailako merkatuetan jaso ziren emaitzak okerragoak izan zirelako.

Era berean, beste zuzeneko zerga nagusiak, hots, sozietateen gaineko zergak hazkunde nabarmena eskuratu zuten (%13,2), EAEko enpresek izan zuten ekonomia jarduera positiboarekin bat eginez. Horren ondorioz, abuztua arte pilatutako diru kopuruak urte osoan zerga horren bitartez aurreikusitako zen diru bilketa gaituta zuten (1.161.900 euro). Hazkunde garrantzitsu hori, berrito ere, errendak itzulketen murrizketaren ondorioa izan da.

Zeharkako zergen diru bilketa ere erritmo onean hazi zen, batez ere bertan kudeatutako BEZaren diru bilketaren emaitza positiboari esker (%10,2), produktuen prezioek izan zuten igoerak eraginda eta familien gastuan nabaritzen hasi den moteltzeari indarra kenduz. Gaur egun ordainketak geroratzeko orduan dagoen jokaera gogorragoak ere diru sarreren gehikuntzari mesedea egin dio. Aitzitik, BEZaren doikuntza 2017koa baino askoz ere txikiagoa da (%-21,9), urte horretan Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan onartu ziren erregularizazio akordioen zati bat sartu zelako.

Azkenik, bertan kudeatutako zerga berezien diru bilketa %3,1 handitu zen aipatutako epealdi horretan, hidrokarburoen bilakaeraren ondorioz, beraren gehikuntza tasa %3,7an kokatu zelako, gasolinaren eta gasolioaren garestitzearengatik. Gainontzeko zergek, alkoholarenak izan ezik (%-45,7), aldakuntza tasa positiboak erakutsi zituzten, baita tabakoaren obrena ere (%2,1), beraren kontsumoa gutxitzen ari den arren.

Por lo que respecta a la recaudación tributaria por tributos concertados de Euskadi hasta agosto de 2018, esta se elevó a los 9.552,2 millones de euros, frente a los 9.100,1 millones de euros de 2017, lo que supone un incremento del 5%, afianzando así los buenos resultados precedentes. Una vez más, este buen comportamiento es debido tanto a la evolución de la imposición directa como a la imposición indirecta, cuyos incrementos se situaron en el 9,1% y 8,4% respectivamente.

Entre los impuestos directos, destacó el crecimiento del IRPF, que durante los primeros ocho meses del año recaudó 255 millones más que en el mismo periodo del año anterior, lo que significa un incremento del 8,0%. Dichos ingresos crecieron, sobre todo, gracias al capítulo que más peso tiene en el impuesto, es decir, las retenciones sobre los rendimientos del trabajo, que se vieron beneficiadas por el aumento del empleo, si bien la tendencia apunta a una suave desaceleración. A este avance de las retenciones hay que sumar la evolución positiva de las diferentes rentas de capital, como las de capital mobiliario (19,0%) y las de ganancias patrimoniales (17,2%). Las primeras confirmaron la trayectoria al alza de los últimos meses, debido a la mejora de los dividendos y de las rentas procedente de los activos financieros, mientras que las ganancias patrimoniales presentaron una importante desaceleración, ligada a los peores resultados que se registraron en los mercados secundarios de renta variable.

Del mismo modo, el impuesto sobre sociedades, el otro principal tributo directo, en consonancia con la positiva actividad económica de las empresas vascas, registró unos crecimientos notables (13,2%), que permitieron que la cantidad acumulada hasta el mes de agosto superara las previsiones de recaudación de dicho impuesto para todo el año (1.161.900 euros). Este importante crecimiento fue nuevamente consecuencia del descenso de las devoluciones realizadas.

Por su parte, la imposición indirecta, igualmente, creció a buen ritmo impulsada por el resultado positivo registrado en la recaudación del IVA de gestión propia (10,2%), influido por el aumento del precio de los productos, que restaron intensidad a la desaceleración que comienza a apreciarse en el gasto de las familias. El actual endurecimiento en la concesión de aplazamientos también ha favorecido el incremento de los ingresos. En sentido contrario, el ajuste de IVA es sensiblemente inferior al de 2017 (-21,9%), año en el que se incorporó parte de los acuerdos de regularización de la Comisión Mixta del Concierto Económico.

Finalmente, los impuestos especiales de gestión propia crecieron un 3,1% durante el periodo mencionado, fruto de la evolución de los hidrocarburos, cuyo incremento se situó en el 3,7%, afectado por el alza de los precios de la gasolina y gasóleo. El resto de partidas, salvo la del alcohol (-45,7%), mostraron tasas de variación positivas, incluso en el caso de las labores del tabaco (2,1%), a pesar de que su consumo disminuye.

**Zerga itunduen bilakaera**  
**(2018ko urtarril-abuztua). Mila euro**
**Evolución de los tributos concertados**  
**(Enero -agosto 2018). Miles de euros**

	Diru bilketa / Recaudación			
	2017	2018	Ald % 18/17 %Var 18/17	
PFEZ	3.188.706	3.444.153	8,0	IRPF
- Lan jard. etekinen atxikip.	3.159.278	3.310.838	4,8	- Ret. rdtos. trabajo y activid. prof.
- Kap. higigarrien etekinen atxikipen	115.405	137.373	19,0	- Ret. rendimientos capital mobiliario
- Kap. higiezinen etekinen atxikipen	56.476	57.334	1,5	- Ret. rendimiento capital inmobiliario
- Ondare irabazien atxikipenak	28.930	33.910	17,2	- Ret. ganancias patrimoniales
- Loteria eta apustu g/z berezi	23.104	41.157	78,1	- Gravamen esp. s/ premios loterías
- Zatikako ordainketak	117.911	125.238	6,2	- Pagos fraccionados prof. y empres.
- Kuota diferentzial garbia	-312.397	-261.696	16,2	- Cuota diferencial neta
Sozietateen gaineko zerga	1.035.371	1.172.182	13,2	Impuesto de Sociedades
- Kap. higigarrien etekinen atxikipen	115.405	137.373	19,0	- Ret. rendimientos capital mobiliario
- Kap. higiezinen etekinen atxikipen	56.476	57.334	1,5	- Ret. rendimiento capital inmobiliario
- Ondare irabazien atxikipenak	28.930	33.910	17,2	- Ret. ganancias patrimoniales
- Kuota diferentzial garbia	834.560	943.566	13,1	- Cuota diferencial neta
Ez-egoiliarren errentaren g/zerga	21.982	11.443	-47,9	Impuesto s/ renta no residentes
Oinordetza eta dohaintzen g/zerga	81.375	93.240	14,6	Impuesto s/ sucesiones y donaciones
Ondarearen gaineko zerga	159.578	179.695	12,6	Impuesto sobre el patrimonio
Kreditu entitateen gordailuen g/z	24.800	24.565	-0,9	Impuesto s/ depósitos ent. crédito
Energia elektriko ekoizpenaren g/z	16.886	17.682	4,7	Impuesto s/ prod. energía eléctrica
<b>ZUZENKO ZERGAK GUZTIRA</b>	<b>4.528.698</b>	<b>4.942.960</b>	<b>9,1</b>	<b>TOTAL IMPUESTOS DIRECTOS</b>
BEZaren bertoko kudeaketa	2.426.841	2.674.594	10,2	IVA. Gestión propia
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	98.272	110.327	12,3	Impuesto s/ transmisiones patrimón.
Egintza juridiko dokumentatuen g/z	26.071	31.020	19,0	Impuesto s/ actos jurídicos docum.
Garraibide batzuen g/z bereziak	13.978	17.758	27,0	I. España. s/det. medios transpor.
Fabrik. zerga berez. Bertoko kudeak.	991.184	1.022.260	3,1	I. Especial fabricación. Gestión propia
Aseguru sarien gaineko zerga	46.836	48.428	3,4	Impuesto sobre primas de seguros
Joko jardueren gaineko zergak	4.527	5.262	16,2	Impuesto sobre actividades de juego
Berotegi efektuko gasen g/ zergak	2.679	2.673	-0,2	Impuesto s/ gases efecto invernadero
Iraungitako zergak	-4.105	-4.135	-0,7	Impuestos extinguidos
<b>ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA</b>	<b>3.606.284</b>	<b>3.908.185</b>	<b>8,4</b>	<b>TOTAL IMPUESTOS INDIRECTOS</b>
<b>TASAK ETA BESTE. SARR. GUZTIRA</b>	<b>63.761</b>	<b>70.258</b>	<b>10,2</b>	<b>TOTAL TASAS Y OTROS INGRESOS</b>
<b>BERTON KUDEATUT. Z/ ITUNDUAK</b>	<b>8.198.743</b>	<b>8.921.403</b>	<b>8,8</b>	<b>TOT TRIB CONCERT. GESTIÓN PROP</b>
BEZaren doikuntza	1.079.488	843.308	-21,9	Ajuste IVA
Zerga berezian doikuntza	-178.158	-212.542	-19,3	Ajuste impuestos especiales
<b>ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA</b>	<b>9.100.073</b>	<b>9.552.170</b>	<b>5,0</b>	<b>TOTAL TRIBUTOS CONCERTADOS</b>



2.6. Arlo finantzarioa  
*Sector financiero*



Udako hilekoetan, azken urteetako hegakortasun gutxiko eta egonkortasun handiko etapa aldatzen hasi zen. Italian bizi den erakunde krisiak eta Espainian gauzatu zen zentsura mozioak ekarri zuten ezegonkortasun hori, abuztuan areagotu zena. Izan ere, hileko horretan zalantza jarri zen Txinako hazkundearen sendotasuna, AEBek mehatxuak egin zituzten merkataritzaren alorrean eta Turkian finantza alorreko zurrunbiloak areagotu ziren. Zehazkiago adierazita, lira turkiarrak balioaren %60,0 inguru galdu zuen urtariletik abuztura bitartean eta epe luzearako interes tasak 10 oinarri puntu inguru igo ziren, %21,0an kokatu arte. Gertakari horiek, moneta politika oro har gogortzeko eta arriskua saihesteko testuinguru batean, azaleratzen ari diren ekonomien kotizazioak bereziki kaltetu zituzten eta abuztuan beraien burtsa indizeek eta dibisek galera garrantzitsuak izan zituzten.

En los meses de verano, la etapa de baja volatilidad y estabilidad de los últimos años comenzó a tambalearse. La crisis institucional vivida en Italia junto a la moción de censura sufrida en España fueron los precursores de esta mayor inestabilidad, que se acrecentó en el mes de agosto, motivada por las dudas sobre la robustez del crecimiento en China, la sucesión de amenazas comerciales de Estados Unidos y el repunte de las turbulencias financieras en Turquía. En concreto, la lira turca se depreció alrededor del 60,0% de enero a agosto, mientras que las tasas de interés a largo plazo aumentaron cerca de 10 puntos básicos (pb) hasta situarse en niveles del 21,0%. Estos elementos, enmarcados en un contexto de endurecimiento global de la política monetaria y mayor aversión al riesgo, penalizaron especialmente a las cotizaciones de las economías emergentes, cuyos índices bursátiles y divisas sufrieron pérdidas importantes a lo largo de agosto.

## Moneta eta finantza adierazleak

## Indicadores monetarios y financieros

2018

	2016	2017	2018						
			Apirila Abril	Maiatza Mayo	Ekaina Junio	Uztaila Julio	Abuztua Agosto	Iraila Sept.	
<b>Interes tasa ofizialak</b>									<b>Tipos oficiales interés</b>
Europako Banku Zentrala	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	Banco Central Europeo
Erreserba Federala	0,75	1,50	1,75	1,75	2,00	2,00	2,00	2,25	Reserva Federal
Japoniako Bankua	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	Banco de Japón
Ingalaterrako Bankua	0,25	0,50	0,50	0,50	0,50	0,50	0,75	0,75	Banco de Inglaterra
Txinako Bankua	4,35	4,35	4,35	4,35	4,35	4,35	4,35	4,35	Banco Popular China
Brasilgo Banku Zentrala	13,75	7,00	6,50	6,50	6,50	6,50	6,50	6,50	Banco Central Brasil
<b>10 urteko zor publikoa. Aldea Alemaniarekiko</b>									<b>Dif bono alem 10 años (puntos básicos)</b>
Espainia	119	114	72	115	102	97	117	104	España
Grezia	690	369	328	425	365	351	406	371	Grezia
Portugal	357	151	110	161	147	133	159	141	Portugal
Erresuma Batua	103	76	85	88	97	88	110	110	Reino Unido
Italia	161	157	123	237	237	227	291	268	Italia

Iturria: Europako Banku Zentrala eta Espainiako Bankua.

Fuente: Banco Central Europeo y Banco de España

Azken hilekoetan, banku zentral nagusiek beren moneta politika doitzeko orduan ezarri duten abiadura ezberdintasunak daude. Halaber, etorkizunean ere erritmo ezberdinak erabiliko dituzte helburu hori lortzeko. Esate baterako, Fed (%2,25) da bere moneta politika azkarren normaltzen ari den erakundea eta dagoeneko bederatzia aldiz igo du esku hartzeko interes tasa bi urteko epean. Erakunde horren ondoren, Kanadako Bankua, bertako esku hartzeko tasa %1,5era igo baitzuen, eta Ingalaterrako Bankua daude, azken honek interes tasak puntu laurden bat igoztean, %0,50etik %0,75era, erabaki baitzuen, 2009tik izan den tasarik gorena delarik. Orobat, azaleratzen ari diren ekonomien artean, gero eta banku zentral gehiagok erreferentziako tasak goratu dituzte. Haien artean, Indiarena (%6,50), Errumaniarena (%2,50) eta Txekiar Errepublikarena (%1,25) nabarmendu behar dira, guztiek inflazioaren balizko gorakada baten arriskuari aurre egiteko. Aitzitik, Europako Banku Zentralak (%0,0) eta Japoniako Bankuak (%-0,1) ez zuten aldaketarik egin beren erabaki moneta politika egokitzailan eta normalizatzeko prozesuari ekiteko oraindik denbora beharko dutela aurreikusten da.

Ezgonkortasuna izan zen nagusi zor merkatuetan. Maiatzean Italian bizi zen, eta arriskua saihesteko gogo bizia hedatu zuen, ziurgabetasuneko egoeraren ondoren, ekainean eta uztailan periferiako herrialdeen zor subiranoaren errentagarritasunak hasi ziren suspertzen. Orobat, bund alemaniarraren errentagarritasuna ere gutxiu zen, babes aktibo gisa jokatzeko duen paperak lagunduta, eta horren ondorioz arrisku sariak uztailan maiatzean jasotakoan antzekoak izan ziren. Abuztuan, Italian 2019rako aurrekontuak eztabaidatzen hasi ziren eta horrek tentsioak ekarri zituen berriro. Horri erantsi behar zaio azaleratzen ari diren herrialdeen ezgonkortasuna, batez ere Argentinan eta Turkian bititakoa. Bi arrazoi horien ondorioz, zorraren interes tasak gorantz egin zuen eta burtsaren kotizazioak, ordea, behera. Presio berri horiek gorantz eraman zituzten zertxobait periferiako arrisku sari gehienak, eta oso gora Greziarena, bertako arrisku saria 400 oinarri puntuen gainetik kokatu baitzen.

Goranzko joera hori irailaren hasieran irauli zen, azaleratzen ari diren herrialdeetako merkatuak egonkortzen hasi zirenean. Espainian, arrisku saria 100 oinarri puntuen azpian kokatu zen eta gero zenbaki horren inguruan jarraitu du, baina ez zor espainiarraren interesak gutxitu zirelako – irailan, errentagarritasuna %1,56aren gainetik kokatu zen, azken lau hilekoko maximoa-, bund alemaniarraren errentagarritasuna are gehiago igo zelako baizik. Europako burtsak irailan izan zuten goranzko joerak babesa bilatzeko gogoia hoztu zuen eta inbertitzaileen perfil ez horren defentsiboak zor alemaniarraren salmenta handiak ekarri zituen.

